

Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioetan

# V. PLANGINTZALDIKO (2013-2017) TARTEKO EBALUAZIO TXOSTENA

2016ko maiatza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioetan

# V. PLANGINTZALDIKO (2013-2017) TARTEKO EBALUAZIO TXOSTENA

2016ko maiatza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

**Argitaraldia:** 1.a, 2016ko azaroa

**Ale-kopurua:** 800 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, I  
01010 Vitoria-Gasteiz

**Diseinua:** EkipoPO

**Inprimaketa:** Gráficas Irudi

**Lege-gordailua:** VI 678-2016

## Euskal herri administrazioak ere aurrera doaz



**Cristina Uriarte Toledo**  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika  
eta Kulturako sailburua

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren bitartez arautu zen Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua; hain zuzen ere, Dekretu horren 6. artikuluan ezartzen da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak plangintzaldi bakoitzaren tartean balorazio txosten bat igorri behar diola Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluari, herri administrazioetan hizkuntza normalizazioa zertan den ezagutzera emateko.

Gauzak horrela izanik eta V. Plangintzaldiaren tarteko urteari helduta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere eginkizuna bete du, eta horren emaitza da liburu hau.

Bi atal nagusitan banatu da argitalpena: alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen datuak aurkezten dira; eta, bestetik, sozietate publikoena eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoena. Galdetegiak 535 entitatetara bidali ziren bere garaian, eta horietatik, 415ek erantzun zuten. Sailburua naizen aldetik, eskerrak eman nahi dizkiet bihotz-bihotzez Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin kolaboratu duten administrazio eta erakunde guztiei, haiek bidalitako datuei esker moldatu ahal izan delako hizkuntza normalizazioari buruzko txosten mardul hau.

Datuei erreparatuta, argi dago euskararen presentziak eta erabilerak gora egin duela Administrazioaren esparru gehien-gehienetan, azken ebaluazioa egin genuenetik. Gorakada hori apalagoa izan da kasu batzuetan, eta nabarmena beste batzuetan; baina, guztiarekin ere, datuek agerian jartzen dute administrazioetan martxan diren erabilera planen garrantzia eta eraginkortasuna. Han eta hemen zabaldua dauden plan horiek aukera bikaina ematen dute kasuan kasuko erakundearen ahu-leziak eta indar-guneak identifikatzeko, eta baita ekintzak abian jartzeko ere, normalizazio-helburuak arian-arian bete daitezten.

Nolanahi ere, liburu hau irakurtzerakoan ez da komeni itsutzea bertan eskaintzen diren zenbaki eta ehunekoekin. Kopuru horiek guztiak herri administrazioek eta erakundeek eskuratutakoak dira, eta zehaztasun handiagoa edo txikiagoa izan dezakete. Zenbakiei beraiei baino, zenbaki horiek adierazten dituzten joerei begiratu behar zaie, horiek benetan marrazten dutelako euskararen normalizazioaren norabidea herri administrazioetan, eta normalizazio horren intentsitatea.

Datuak era batekoak edo bestekoak izan, garbi dagoena da Administrazioa inoiz baino prestatuago dagoela herritarrei euskarazko zerbitzua emateko eta euskaraz lan egiteko. Bide luzea gelditzen da, baina herri-administrazioak aurrera doaz, urrats sendoaz eta gelditu gabe. 2017. urtean, V. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egin beharra dagoela-eta, jarrai dezatela datuek goranzko joerarekin.

Askotarikoa da gure gizartearen egoera soziolinguistikoa, eta askotarikoa da euskararen presentzia eta erabilera EAeko herri-administrazioetan. Hori erakusten du, normala denez, V. Plangintzaldiaren tarteko ebaluazioak ere. Kontua da, abiapuntu ezberdinetatik ekindako lanean inor atzean ez gelditzea eta, denok, aurrerapausoak ematen jarraitzea euskararen erabilera gero eta sendoagoa eta zabalduagoa izan dadin hango eta hemengo udal, foru aldundi eta Jaurlearitzaren zerbitzuetan. Herri-tarren eta herritarrentzako zerbitzuetan. Ebaluazioaren argitan, neurri zuzentzaileak hartuz. Inork ez dezan euskararen txantxangorriaren hegaldia gal!



**Patxi Baztarrিকা Galparsoro**  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## Lan hizkuntza dugu erronka, aurrerabidean jarraitzeko

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta, zeresanik ez, EAEko erakunde publikoek izugarrizko ahalegina egin dute, argitalpen honetan jasotzen diren datuak biltzeko eta aurkezteko. Eskertzekoa da ahalegin hori, eta lerro hauek baliatu nahi ditut espresuki eskerrak emateko.

V. Plangintzaldiaren tarteko ebaluazioaren datu horiek eskuartean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan agindutakoa oro har betetzen ari gara, bai; baina honelako ebaluazio batek lege-betekizun bat neurri zabalean gauzatzeko baino askoz gehiagorako balio behar du. Ebaluazio batek, ondo eginda badago behintzat, gure erakundeen argazki zehatza eman behar digu; esan behar digu zein den euskararen egoera zerbitzu eta lan hizkuntza gisa. Lau hitzetan esateko: diagnostikoa eskaini behar digu. Gero, diagnostiko horren gainean, euskararen erabilera normalizatzeko plana eraiki beharra dago: gure egoera zein den alde zurretik jakinda, etorkizunerako helburuak jarri behar ditugu; adierazle batzuk aurreikusi, helburu horien betetze maila neurtzeko; eta ekintza batzuk antolatu, helburu horiek ezarritako epean betetzen direla ziurtatzeko.

1998tik hona, ia 20 urtean zehar, 5 plangintzaldi burutu dira. Hasieran, normala zenez, euskararen ezagutzan zentratu ziren planak nagusiki, hots, hizkuntza eskakizunak finkatu, erakundeei zegozkien derrigortasun datak ezarri, eta funtzionarioak eta herri-langile finkoak, batzuk euskalduntzera eta besteak jada bazuten euskara gaitasuna hobetzera bidean jarri ziren. Ahalegin horren ondorioa da funtzionarioen %60k dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea eta beste % 8,7k bat behe-ragoko hizkuntza eskakizun bat. Ez da nolana hikoia izan lehenengo plangintzalditik, duela 20 urtetik, gaurdainoko jautzia arlo honetan: langileen % 23,2 ziren orduan, abiapuntuan, lana euskaraz egiteko gaitasuna zutenak. Gaur egun, zorionez, eta nahiz eta oraindik ere pausoak eman beharra dugun eta ematen jarraitzen dugun "euskara gaitasuna" deitzen dugun horretan, euskararen erabilera zentratuta daude planak nagusiki, zerbitzu hizkuntzan batez ere, baina baita lan hizkuntzan ere aspaldi honetan. Horren isla dira lan-hizkuntzaren adierazleek gora joatea (lan-bilerak, lan-agirien sortze hizkuntza, eta abar). Gainera, etorkizunerako erronka bereziak dauzkagu; horien artean bada bat garrantzitsuenetarikoa dena eta horrexegatik beren-beregi aipatu nahi dudana: jende gaztearen sarrera administraziora. Kontuan izan behar da 25-30 urtetik beherako gazte ia guztiak gai direla euskaraz maila batean edo bestean aritzeko. Hori horrela delarik, ahalegin berezia egin behar da funtzionario gazte horiek euskaraz lan egiten duen administrazio batean integratzeko, eta beren lana lehen momentutik bertatik euskaraz egiteari ekin eta hala egiteko babesa eta laguntza izan dezaten, lanerako euskarazko trebakuntza barne. Funtzionario berriak euskaraz lan egitearen garrantziaz ohartu behar dira hasiera-hasieratik, euskaraz lan eginez baizik ezin delako euskararen erabilera indartu, eta euskara lan hizkuntza gisa neurri handiagoan erabiliz hobeto bermatzen direlako herri-tarren hizkuntza eskubideak.

Datorren urtean, Bikain ziurtagiriaren Dekretu berria jarriko da abian; hainbat moldaketa eta berrikuntza egin dira dekretuan, ziurtagiria sektore pribatuari ez ezik, publikoari ere egokitzeko eta azken zortzi urte hauetan gertatu diren aldaketak zein ebaluatzaileek proposatutako hobekuntzak sartzeko. Horren guztiaren ondorioz, Bikainera inoiz baino administrazio gehiago aurkeztuko direla aurreikusten dugu, eta ebaluazioa, erakundeak bikaintasunera behar bezalako pausuak eman nahi baditu, Bikaineko kanpoko ebaluatzaileen esku geratuko da. Horrenbestez, ebaluazio hori zehatzagoa eta fidagarriagoa izango da. Gainera, erakundeak Bikain ebaluazioak berekin dakarren laguntza eskerga izango du: alde batetik, zer egiten den ondo adieraziko diote erakundeari; eta, bestetik, ahulenen dabilizan arloetan hobetzeko proposamenak egingo zaizkio. 2017 urtean, V. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egin behar dela eta, logikoa dirudi ebaluazio hori eta Bikainek egiten duena lerrotzea, bat egitea; horrek esan nahi du batean eta bestean ebaluatuko diren elementuak berdinak izango direla, eta, normala denez, Bikain berrira aurkezten diren erakundeak salbuetsita egongo direla Plangintzaldiaren hurrengo ebaluazioak egitetik, azken batean, erakundearen euskararen egotzari buruzko datuak Bikainetik eskuratuko dituelako HPSk.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan beste urrats bat eman nahi dugu hurrengo Plangintzaldiari begira. Hemendik aurrera ebaluaziorako egitura estandar eta egonkorra izango dugunez —Bikainena—, erabilera planen egitura ere lerrotuta nahi dugu ebaluazioarekin, planen kudeaketari berari erraztasunak emate aldera. Beraz, hurrengo plangintzaldirako, plan eredu bat aurkeztuko dugu (diagnostikoa, plan estrategikoa eta urteko kudeaketa plana), EAEko sektore pribatu eta publikoko euskarara plan guztien egitura eta metodologia aurreneko aldiz bateratzen saiatzeko. Hori guztia lortu nahi dugu, aldeztatik jakinda erakundeak mundu ezberdinetan bizi direla eta errealitateak oso ezberdinak direla, planifikatzeko tresna bateratua erabiltzeko eta hemendik aurrera hizkuntza bera baliatzeko. Horrek isla izango luke, zalantzarik gabe, erabilera planen eraginkortasunean, eta, azken batean, euskararen erabileraren normalizazioan.

Ebaluaziotik abiatu, eta, hegan eta hegan, txantxangorria bezala, hizkuntza plangintzaren inguruan ari gara bueltaka. Ilusioz beterik ekiten diogu hegaldi berriari, lehendik —duela 30 urtetik, 1986koa baita herri-administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko lehen dekretua— datorren euskararen hegaldia indartzeko, ilusioz eta itxaropentsu, jakin badakigulako herri-administrazioen babesak daukagula, eta denoi —udal, foru aldundi, sozietate publiko, askotariko herri erakundeetako administrazio zerbitzu eta Eusko Jaurlaritzari— indarririk ez zaigula falta euskararen hegoak indartsu astintzeko.



# Aurkibidea

I. Aurkezpena.....	13
<b>2. Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako ebaluazioa .....</b>	<b>15</b>
2.1. Erabilera planei buruzko informazioa.....	17
2.2. Erabilera zerbitzu hizkuntzan .....	19
2.2.1. Euskararen idatzizko erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan .....	19
2.2.2. Euskararen ahozko erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan .....	23
2.2.3. Elebideko kexen kopurua.....	25
2.3. Erabilera lan hizkuntzan .....	25
2.3.1. Euskaraz sortzen den dokumentazioaren indizea .....	26
2.3.2. Lan bileretako ahozko erabilera .....	27
2.3.3. Lan bileretako idatzizko erabilera .....	28
2.3.4. Lan hizkuntzako erabilerari dagozkion beste adierazle batzuk .....	28
2.4. Erabilera herri administrazioen arteko harremanetan .....	34
2.4.1. Administrazioen arteko harremanetan ahozko erabilera .....	35
2.4.2. Administrazioen arteko harremanetan idatzizko erabilera.....	36
2.5. Erakunde ordezkarien asistentzia eta parte hartzea .....	38
2.6. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak .....	39
2.7. Langile eta erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna .....	39
2.7.1. Hizkuntza eskakizunen betetze maila .....	39
2.7.2. Guztira egiaztatutako hizkuntza eskakizunak.....	40
2.7.3. Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna.....	45
2.8. Langile eta erakunde ordezkarien balorazioa eta parte hartzea, erabilera planarekiko .....	46
2.8.1. Langileen eta erakunde-ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko .....	46
2.8.2. Langile eta erakunde ordezkarien asistentzia eta parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan.....	47
2.9. Herri Administrazioiko mmaitza ualitatuak.....	48
2.9.1. Euskararen erabilera zerbitzu hizkuntzan .....	48
2.9.2. Euskararen erabilera lan hizkuntzan .....	49
2.9.3. Administrazioen arteko harremanak.....	50
2.9.4. Erakunde ordezkarien asistentzia eta parte hartzea.....	51

<b>3. Sozietate publiko eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako ebaluazioa .....</b>	<b>53</b>
3.1. Erabilera planen informazioa.....	54
3.2. Erabilera zerbitzu hizkuntzan .....	54
3.2.1. Hizkuntza paisaia .....	54
3.2.2. Harrera.....	55
3.2.3. Bezeroak / herritarrak .....	56
3.3. Erabilera lan hizkuntzan.....	57
3.3.1. Barruko hizkuntza paisaia.....	57
3.3.2. Produktua / zerbitzua.....	58
3.3.3. Hizkuntza politika.....	58
3.3.4. Pertsonen kudeaketa .....	60
3.3.5. Baliabideak.....	60
<b>4. Eranskinak .....</b>	<b>63</b>
4.1. 1. eranskina: datuak lurraldeka.....	63
4.1.1. Erabilera planak.....	63
4.1.2. Erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan.....	63
4.1.3. Euskara sortze hizkuntza.....	65
4.1.4. Lan bileretako ahozko eta idatzizko erabilera .....	65
4.1.5. Administrazioen arteko harremanetan euskararen erabilera.....	66
4.1.6. Ordezkarien asistentzia eta parte hartzea.....	66
4.1.7. Hizkuntza irizpideak.....	67
4.1.8. Langile eta erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna .....	67
4.1.9. Langile eta erakunde ordezkarien erabilera planarekiko balorazioa eta parte hartzea.....	68
4.2. 2. eranskina: udaletako datuak derrigortasun indizearen arabera.....	68
4.2.1. Erabilera planak.....	68
4.2.2. Euskararen erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan .....	69
4.2.3. Euskaraz sortutako idatziak .....	70
4.2.4. Lan bileretako erabilera .....	70
4.2.5. Administrazioen arteko harremanetan euskararen erabilera .....	71
4.2.6. Erakunde ordezkarien asistentzia eta parte hartzea .....	71
4.2.7. Hizkuntza irizpideak.....	72
4.2.8. Langile eta erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna.....	72
4.2.9. Langile eta erakunde ordezkariak erabilera planarekiko balorazioa eta parte hartzea.....	73

4.3.	3. eranskina: galdetegia.....	74
4.3.1.	Herri Administrazioa.....	74
4.3.2.	Sozietate publikoak, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, EAEko sektore publikoko fundazio eta partzuergoak.....	85
4.4.	4. Eranskina: erakundeen zerrendak.....	96
4.4.1.	Herri administrazioak.....	96
4.4.2.	Galdetegia erantzun duten sozietate publikoak.....	106



# I. Aurkezpena


Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautu zen. Dekretu horren arabera, Euskal Herriko administrazioetako hizkuntza normalizazio prozesua hezurmani zedin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu behar zuen.

Dekretu horren 6. artikuluari jarraiki, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, aurrerantzean HPS, plangintzaldi bakoitzaren tartean balorazio txostena igorriko dio Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari herri administrazioetan hizkuntza normalizazioa zertan den ezagutzera emateko.

V. Plangintzaldiaren tarteko ebaluazio prozesua aurrera eramateko, iturri nagusi gisa, HPSk diseinatu eta erakunde guztien eskura jarri duen galdetegia erabili da, eta haren arabera jasotako datuak ekarri ditugu txosten honetara.

Galdetegiaren bidez informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jaso da, txosten honen amaieran ikus daitekeen moduan.

Txosten hau osatzeko jarraitu den metodologiaren eskema hurrengoa da:



Prozesuan jasotako informazioa sailkatzeko txosten hau honako ataletan antolatu da:

1. Aztergaien aurkezpena: azterketarako kontuan hartuko dugun unibertsoa eta jasotako erantzunei buruzko azalpen laburra.
2. Erakundeak eta erabilera planak: erakundeetako erabilera planei buruzko informazio orokorra.
3. Datuak, atalka: erabilera planei buruzko datu kuantitatiboak esparruka jaso eta aztertu dira: zerbitzu hizkuntza, lan hizkuntza, administrazioen arteko ahozko eta idatzizko harremanak... Datu horiek aurkezteko, ikuspegi orokorra emateaz gain, erakunde motak, lurraldeak<sup>1</sup> eta, udalen kasuan, derrigortasun indizearen datuak eman dira
4. Erabilera planei buruzko balorazio kualitatibo orokorra: herri administrazioetako erantzun kualitatiboen azterketa.

<sup>1</sup>Lurralde bakoitzean barneratu dira bertako udalak, mankomunitate eta partzuergoak, eta lurralde horretako foru aldundi eta batzar nagusia. Aldiz, EAE moduan sailkatu dira hiru lurraldeetan eragina duten gainerako erakundeak, hots, Eusko Jaurlaritzaren eta bere erakunde autonomoak, Eusko Legebiltzarra, Euskal Herriko Unibertsitatea, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Lan Harremanen Kontseilua, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, Uraren Euskal Agentzia eta Haurreskolak Partzuergoa.



## 2. Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako ebaluazioa

V. Plangintzaldiaren tarteko ebaluaziorako kontuan hartu dira 86/1997 Dekretuko 2. eta 3. artikuluetan zehaztutako herri administrazioak. IV. Plangintzaldiko ebaluazioan egin zen bezala, sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak aparte landu dira, duten izaera bereziagatik, eta horien emaitzak "Euskararen erabileraren normalizazioa sozietate publiko eta zuzenbide pribatuko erakunde pribatuetan" txostenaren 3. puntuan aurkeztu ditugu.

86/1997 Dekretuko 2. eta 3. artikuluetan adierazten den moduan, azterketa honetan EAEko herri administrazioak eta erakundeak ikertu eta jarraian azaldutako moduan sailkatu ditugu:

- Udalak
- Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak.
- Foru aldundiak eta batzar nagusiak.
- Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak.
- Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa.
- Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- Lan Harremanen Kontseilua.
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.
- Uraren Euskal Agentzia.
- Haurreskolak Partzuergoa<sup>2</sup>
- Etxepare Euskal Institutua.
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

Hurrengo orrialdeko taulan ikus daitezke talde hauetako bakoitzak biltzen dituen erakundeen kopuru erreala eta jasotako erantzunen kopurua.<sup>3</sup>

---

<sup>2</sup>Bere izaera bereziagatik, gainerako mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoetatik bereiztea erabaki da.

<sup>3</sup>Erantzun duten erakunde guztien zerrenda txosten honen eranskinetan kontsulta daiteke.

### Aztergaien aurkezpena: erakundeak eta kopuruak

Erakunde motak	Jasotako erantzunak	Erakunde kopuru erreala	Erantzunen %
1. Udalak	238	251	%94,8
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	37	52	%71,1
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	6	6	%100
4. Eusko Jaurlaritzaren eta bere erakunde autonomiadunak	15	15	%100
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	1	1	%100
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	1	1	%100
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	1	1	%100
8. Lan Harremanen Kontseilua	1	1	%100
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	1	1	%100
10. Uraren Euskal Agentzia	1	1	%100
11. Haurreskolak Partzuergoa	1	1	%100
12. Etxepare Euskal Institutua	1	1	%100
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	1	1	%100
<b>Guztira</b>	<b>305</b>	<b>333</b>	<b>%91,6</b>

Guztira jasotako erantzunen kopurua esanguratsua izan da, %91,6.

### Aztergaien aurkezpena: erantzunak lurraldeka

Lurraldekako banaketa	Jasotako erantzunak	Erakunde kopuru erreala	Erantzunen %
Araba	64	67	%95,5
Bizkaia	123	131	%93,9
Gipuzkoa	93	110	%84,5
EAE	25	25	%100,0
<b>Guztira</b>	<b>305</b>	<b>333</b>	<b>%91,6</b>



Udalei dagokienez derrigortasun indizearen arabera emaitzak hauek dira:

### Aztergaien aurkezpena: udaletako emaitzak derrigortasun indizearen arabera

Udalak: derrigortasun araberako sailkapena	Jasotako erantzunak	Erakunde kopuru erreala	Erantzunen %
%0-%25	11	11	%100
%25-%45	66	67	%98,5
%45-%70	45	48	%93,8
%70-%100	116	125	%92,8
<b>Guztira</b>	238 (biztanleria osoaren %96,53 da)	251	%94,4

Orokorrean, aipatu behar da, erantzun duten erakunde mota guztiak kontuan hartuta (305 erakunde), datuetan eragin handia izan dutela udalek (238), eta, udalen artean, bereziki, % 70-100eko derrigortasun indizea dutenek (238 udaletik, 116). Derrigortasun indize tarte horretan (%70-%100) kokatzen dira euskaldun portzentaje handienak dituzten udalerrriak, eta aipagarriak dira udal hauetan euskara sustatzeko egindako ekimenak: arnaguneak, erabilera planak, ESEP, etab.

## 2.1. Erabilera plani buruzko informazioa


### Erakundeen erabilera planak

Erakundeak badu erabilera planik?	
Bai	256
Ez	49
<b>Guztira</b>	<b>305</b>

Galdetegia erantzun duten erakundeen %84k indarrean du euskararen erabilera normalizatzeko plana.

Aurreko Plangintzaldiko kopurua gainditu egin da orainoan, 2012arekiko 14 normalizazio plan gehiago baitaude.

### Erabilera planak erakunde motaren arabera



Erakundeak badu erabilera planik?		
Erakunde motak	Bai	Ez
1. Udalak	211	27
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	19	18
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	5	1
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	15	0
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	1	-
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	1	-
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	1	-
8. Lan Harremanen Kontseilua	0	1
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	0	1
10. Uraren Euskal Agentzia	0	1
11. Haurreskolak Partzuergoa	1	-
12. Etxepare Euskal Institutua	1	-
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	1	-
<b>Guztira</b>	<b>256</b>	<b>49</b>

Erakundeak aztertuta, erantzun duten 211 udalek (%85) dute indarrean erabilera plana. Kuadrilla, mankomunitate eta partzuergoen kasuan, 19 erakundeak (%51).

Datu hauek aurreko Plangintzaldiko ebaluazioan jasotakoekin alderatuz, 6 udal gehiagotan dago erabilera plana indarrean.

Hiru Foru Aldundiek definituta dituzte beren erabilera planak, eta, Batzar Nagusiei dagokienez, Gipuzkoako eta Arabako Batzar Nagusiek ere bai.

Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunen kasuan, sail eta erakunde guztiek dute definituta erabilera plana, txosteneko 3.puntuari ikus daitekeen bezala.

Gainontzeko erakundeetan bi erabilera plan gehiago daude IV. Plangintzaldiaren ebaluaziotik hona: Etxepare Euskal Institutuarena eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarena. Azken hori lehenengo aldiz sartu da ebaluazioan.

## 2.2. Erabilera zerbitzu hizkuntzan

Herritarrei emandako zerbitzuan euskararen erabilera aztertuko dugu jarraian. Datuak honela sailkatuko ditugu:

- 2.2.1 Euskararen idatzizko erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan
- 2.2.2 Euskararen ahozko erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan
- 2.2.3 Elebideko kexen kopurua

### 2.2.1. Euskararen idatzizko erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan

Hurrengo orrialdeko taulan ikus daitekeenez, idatzizko erabilera orokorra kalkulatzeko azpi arlo hauek neurtu dira: *hizkuntza paisaia, argitalpenak, publizitatea, herritarrekiko idatzizko harremanak* (tramitazio telematikoa, herritarrei bidalitako idatziak, herritarrek erakundera euskaraz bidalitako idatziei emandako erantzuna) eta *web orriak eta sare sozialak*.

Datu orokorrei erreparatuta (ikus ondorengo taula), *jendaurreko zerbitzuetan idatzizko euskararen erabilerari dagokionez*, gehien erabiltzen den hizkuntza eredu ele bietakoa da, idatzizko harremanen %50,3 ele bietan izaten dira eta. Idatzizko harremanen %40,6 euskara hutsez egiten dira; aldiz, gaztelania hutsezko idatzizko harremanak %9,2 dira.

Emaitzak erakunde motaren arabera aztertuz, azpimarratzekoa da jendaurreko zerbitzuetan udalek euskaraz erdia inguru egitea (%44,9). Ele bietan gehien egiten duten erakundeak Lan Harremanen Kontseilua (%96,3), Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentzia (%90,8), Uraren Euskal Agentzia (%90,8) eta Foru Aldundietan (%90,7) dira.

#### 2.2.1.1. Hizkuntza paisaia

Hizkuntza paisaiari dagokionez, eraikin barruko eta kanpoko errotuluetan euskararen presentzia maila handian ziurtatzen da, euskara hutsezkoak %50,5 eta elebidunak %46,5 baitira. Euskararen presentziarik gabeko errotuluak %3,1 baino ez dira; hala ere, bereziki zaindu beharreko atala da hau.

#### 2.2.1.2. Argitalpenak

Batez ere, ele bietan kaleratzen dira argitalpenak: hain zuzen ere, %57,3; Euskaraz egindakoak %35,4 dira; eta gaztelaniaz argitaratutakoa, guztiaren %7,3. Ikus daitekeenez, ele bietan argitaratzeko irizpidea betetzen da maila handi batean.

Udaletan argitaratzen denaren erdia ele bietan argitaratzen da, eta euskara hutsezko argitalpenek ere badute ehuneko garrantzitsua: hain zuzen ere, %41,2.

#### 2.2.1.3. Publizitatea

Ele bietan %56,3 egiten da; euskaraz, %35,8; eta gaztelania hutsez, %7,9. Nabaria da erakunde gehienek publizitatea ele bietan egiteko irizpidea.

Euskararen idatzizko erabilera, arreta eta jendaurreko zerbitzuetan (%)

Erakunde motak	Hizkuntza paisaia			Argitalpenak			Publizitatea			Herritarrekiko idatzizko harremanak			Orokorra		
	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak
1. Udalak	53,4	3,1	43,5	41,2	7,6	51,2	41,4	8,3	50,3	43,5	18,5	38	44,9	9,4	45,7
2. Kuadrilak, mankomunitate eta partzuergoak	43,9	1,8	54,3	18,8	1,4	79,9	24,1	8,9	67	36,7	19,8	43,5	30,8	8	61,2
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	0,6	3,3	96,1	2	3,4	94,6	5,8	3,4	90,8	11,6	7,2	81,2	5	4,3	90,7
4. Eusko Jaurjaritza eta bere erakunde autonomiadunak	2,8	0	97,2	9,2	18,1	72,7	10,2	3,4	86,4	26,7	16,5	56,8	12,2	9,5	78,3
5. Eusko Legebiltzarrak eta Arartekoa	50	0	50	0	0	100	2,5	0	97,5	54	20	26	26,6	5	68,4
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	0	5	95	0	10	90	0	0	100	15	15	70	3,8	7,5	88,7
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	0	0	100	-	-	-	0	0	100	24	26	50	8	8,7	83,3
8. Lan Harremanen Kontseilua	0	0	100	0	10	90	0	0	100	0	5	95	0	3,7	96,3
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	40	60	0	0	0	100	0	0	100	1	49	50	10,3	27,3	62,4
10. Uraren Euskal Agentzia	2,5	2,5	95	0	0	100	3,3	1,7	95	11,7	15	73,3	4,4	4,8	90,8
11. Haurreskolak Partzuergoa	100	0	0	0	0	100	0	0	100	45	5	50	36,3	1,3	62,4
12. Etxepare Euskal Institutua	100	0	0	0	0	100	0	0	100	50	0	50	37,5	0	62,5
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	0	0	100	0	0	100	0	0	100	5	31,7	63,3	1,3	7,9	90,8
<b>Batez bestekoa</b>	<b>50,5</b>	<b>3,1</b>	<b>46,5</b>	<b>35,4</b>	<b>7,3</b>	<b>57,3</b>	<b>35,8</b>	<b>7,9</b>	<b>56,3</b>	<b>40,5</b>	<b>18,4</b>	<b>41,1</b>	<b>40,5</b>	<b>9,2</b>	<b>50,3</b>

## 2.2.1.4. Herritarrekin idatzizko harremanak

Herritarrekiko idatzizko harremanak azpi adierazle hauetaz osatuta dago:

- Tramitazio telematikoa
- Herritarrei bidalitako idatziak
- Herritarrek euskaraz bidalitako idatziei emandako erantzunak.

### Herritarrekin idatzizko harremanak

Erakunde motak	Tramitazio telematikoa (%)			Herritarrei ofizioz bidalitako idatziak (%)			Herritarrek euskaraz bidalitako idatziei emandako erantzuna (%)			Orokorra (%)			Herritarrek erakundera bidalitako idatziak (%)	
	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz
1. Udalak	16,4	27,5	56,1	31,2	25	43,8	82,8	3,1	14,1	43,5	18,5	38	35,7	64,3
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	20,5	28	51,5	15,7	23,1	61,2	74	8,4	17,6	36,7	19,8	43,5	33,8	66,2
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	9	15	76	1	3	96	24,7	3,7	71,6	11,6	7,2	81,2	30,5	69,5
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomoak	0,3	13	86,7	3,4	34,6	62	76,5	1,4	22,1	26,7	16,5	56,8	14,4	85,6
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	-	-	-	8	40	52	100	0	0	54	20	26	22	78
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	0	0	100	0	40	60	45	5	50	15	15	70	45	55
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	0	0	100	48	52	0	-	-	-	24	26	50	2	98
8. Lan Harremanen Kontseilua	0	0	100	0	10	90	-	-	-	0	5	95	15	85
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	-	-	-	0	0	100	2	98	0	1	49	50	2	98
10. Uraren Euskal Agentzia	0	0	100	0	40	60	35	5	60	11,7	15	73,3	10	90
11. Haurreskolak Partzuergoa	90	10	0	0	0	100	-	-	-	45	5	50	60	40
12. Etxepare Euskal Institutua	-	-	-	50	0	50	-	-	-	50	0	50	65	35
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	15	85	0	0	10	90	0	0	100	5	31,7	63,3	20	80
<b>Batez bestekoa</b>	<b>15,7</b>	<b>26,4</b>	<b>57,9</b>	<b>27,2</b>	<b>24,7</b>	<b>48,1</b>	<b>78,7</b>	<b>4</b>	<b>17,3</b>	<b>40,5</b>	<b>18,4</b>	<b>41,1</b>	<b>34,3</b>	<b>65,7</b>

Herritarrekiko idatzizko harremanen batez bestekoari erreparatuta, herri administrazioek herritarrekin euskara hutsezko eta ele bietan izandako harremanen ehunekoa antzerakoa da, bi kasuetan %40 ingurukoa.

Tramitazio telematikoari dagokionez, eskainitako edukiak aztertuz gero, ele bietan egoten dira tramitazio telematiko gehienak, %57,9, eta euskara hutsez %15,7. Aipagarria da Haurreskolak Partzuergoa, euskara hutsezko tramitazio telematiko %90ekoa duelako.

Udalen kasuan, nabarmen hobetu da aurreko plangintzaldiarekiko ele bietara egindako tramitazio telematikoaren ehunekoa: 2012an %23,41 eta 2015ean %56,1.

Herritarrei bidali zaizkien idatzien erdiak inguru, %48,1, ele bietan bidali dira; beste erdia, euskara hutsez eta gaztelania hutsez bidalitakoen artean banatzen da, %27,2 eta %24,7 hurrenez hurren.

Udaletan, gero eta idatzi gehiago bidaltzen zaizkie herritarrei euskara hutsean: 2012an %28,7 zen eta gaur egun %31,2.

Foru aldundiak eta batzar nagusietan ele bietarako joera dago: 2012ko %91,6tik %96ra igaro baita.

Herritarrek erakundeei euskaraz bidalitako idatziei ematen zaien erantzunari dagokionez, ikus daiteke euskarazko erantzuna dela nagusi: %78,7, hain zuzen ere; ele bietan %17,3 ematen da erantzuna; eta gaztelaniaz, %4.

Herritarrek erakundera bidalitako idatzien datuak ikusita, esan daiteke herritarrek herri administrazioari bidaltzen dioten idatzien heren bat euskaraz bidaltzen dietela.

## 2.2.1.5. Web orriak eta sare sozialak

### Web orriak eta sare sozialak

Erakunde motak	Web orriaren euskararen presentzia (%)	Sare sozialetan euskararen presentzia (%)
1. Udalak	75,6	72,1
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	71,1	68,6
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	55	56,7
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	92,7	72,8
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	50	50
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	95	50
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	50	--
8. Lan Harremanen Kontseilua	90	--
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	100	1
10. Uraren Euskal Agentzia	40	100
11. Haurreskolak Partzuergoa	100	--
12. Etxepare Euskal Institutua	100	100
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	50	--
<b>Batez bestekoa</b>	<b>75,2</b>	<b>71,1</b>

Azkenik, web orri eta sare sozialei erreparatuko diegu. Web orriaren euskararen edukiaren batez bestekoa %75,2koa da. Hainbat erakundek %100ean bermatzen dute euskararen presentzia web orriaren. Sare sozialen kasuan, euskararen erabileraren batez bestekoa %71,1ekoa da.

## 2.2.2. Euskararen ahozko erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan

Euskararen ahozko erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan aztertzeko erabili diren azpi-adierazleak honakoak izan dira: *euskararen erabilera telefonozko harreran, leihatilako harreran, jendaurreko ekitaldietan, leihatilako elkarrizketetan eta telefonozko elkarrizketetan.*

### Euskararen ahozko erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan

Erakunde motak	Harremana harreran (%)*			Orokorra	Harremana elkarrizketetan (%)		Orokorra
	Telefonozko harreran euskara	Leihatilako harreran euskara	Jendaurreko ekitaldietan euskara		Leihatilako elkarrizketetan euskara	Telefonozko elkarrizketetan euskara	
1. Udalak	76,6	68,5	65,7	70,3	78,2	78	78,1
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	77,7	73,6	59,1	70,1	85	78,2	81,6
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	49,8	52	47	49,6	85	87,5	86,3
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	64,5	67,2	37,7	56,5	77,8	76,7	77,2
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	86	89	30	68,3	100	81	90,5
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	60	45	70	58,3	40	50	45
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	40	40		40	100	40	70
8. Lan Harremanen Kontseilua	65	40	3	36	100	100	100
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	100	100	5	68,3	100	100	100
10. Uraren Euskal Agentzia	70	30	0	33,3	70	70	70
11. Haurreskolak Partzuergoa	100	100	10	70	100	100	100
12. Etxepare Euskal Institutua	100**	100	100	100	100	100	100
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	90	60	20	56,7	100	90	95
<b>Batez bestekoa</b>	<b>75,9</b>	<b>68,8</b>	<b>62,3</b>	<b>69</b>	<b>79,3</b>	<b>78</b>	<b>78,7</b>

\*Harrera euskaraz: telefonozko harrera, jendaurreko harrera, erantzugailua eta bestelako arreta grabazioak, eta jendaurreko ekitaldiak.

\*\*%100ak esan nahi du komunikatu behar den guztia euskaraz ere egiten dela.

Jendaurreko ahozko arretari erreparatuta, herri administrazioak herritarrari harrera euskaraz egiten dio %69an. Oro har, ikus daiteke telefonozko eta leihatilako harreran euskara gehiago erabiltzen dela jendaurreko ekitaldietan baino.

Harrera egin ondoren, herritarra euskaraz zuzentzen zaionean herri administrazioari, herri administrazioak batez beste %78,7an errespetatzen du herritarraren euskaraz artatua izateko eskubidea. Hemen ere ez dago alde handirik elkarrizketa telefonoz ala aurrez aurrekoa izan.

Emaitzak erakundeka aztertuz gero, azpimarratzekoa da herritarrekin izandako elkarrizketetan (telefonoz zein leihatilan) euskarak izan duen bilakaera. Ikus dezagun erakunde hauetan izandako eboluzioa:

#### Herritarrekin telefonozko elkarrizketak

	2012	2015
Udalak	%48,13	%78
Kuadrilak, Mankomunitate eta Partzuergoak	%47,8	%78,2
Foru aldundiak eta batzar nagusietan	%36,67	%87,5

#### Herritarrekin elkarrizketak leihatilan

	2012	2015
Udalak	%48,49	%78,2
Kuadrilak, Mankomunitate eta Partzuergoak	%46,35	%85
Foru aldundiak eta batzar nagusietan	%47,5	%85



## 2.2.3. Elebideko kexen kopurua

### Elebiden jasotako kexak

Erakunde motak	Urtea		
	2013	2014	2015
1. Udalak	70	102	55
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	8	8	6
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	29	18	17
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	43	41	41
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	0	1	0
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	9	5	0
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	0	0	0
8. Lan Harremanen Kontseilua	0	0	0
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	0	0	0
10. Uraren Euskal Agentzia	0	1	0
11. Haurreskolak Partzuergoa	0	0	0
12. Etxepare Euskal Institutua	0	0	0
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>159</b>	<b>176</b>	<b>119</b>

2015ean jasotako kexei dagokienez, kexa kopuru gutxiago jaso da: 119 guztira. Emaitzak erakundeka aztertzen baditugu, herritarrek harreman gehien duten guneetan jaso dira kexa gehienak, hau da: udal (55), Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomoetan (34) eta foru erakundeetan (17).

## 2.3. Erabilera lan hizkuntzan

Arlo hauek aztertuko ditugu atal honetan:

- 2.3.1 Euskaraz sortzen den dokumentazioa.
- 2.3.2 Lan bileretako ahozko erabilera.
- 2.3.3 Lan bileretako idatzizko erabilera.
- 2.3.4 Lan hizkuntzako erabilerari dagozkion beste adierazle batzuk.

## 2.3.1. Euskaraz sortzen den dokumentazioaren indizea

### Euskara sortze hizkuntza\*

Erakunde motak	Euskaraz sortutako idatziak (%)
1. Udalak	42
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	39,2
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	11,3
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	17,9
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	58
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	25
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	2
8. Lan Harremanen Kontseilua	2
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	5
10. Uraren Euskal Agentzia	1
11. Haurreskolak Partzuergoa	70
12. Etxepare Euskal Institutua	90
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	15
<b>Batez bestekoa</b>	<b>40</b>

\*Sortze hizkuntza baloratzeko, neurtu da idatzitako zenbat komunikazio sortu den jatorriz euskaraz:

- Idazki laburrak: e-mailak, oharrak, jakinarazpenak, egiaztagirak, inprimakiak...
- Idazki luzeak: memoriak, txostenak, proiektuak...

Herri administrazioan *euskaraz sortzen den dokumentazioari dagokionez*, oro har esan dezakegu sortzen diren bost dokumentutatik bi euskaraz sortzen direla, %40 hain zuzen ere. Udalak, kuadrillak, mankomunitateak eta partzuergoak batez besteko horren inguruan kokatzen dira.

*Euskaraz sortutako indizea hobetu egin da aurreko plangintzaldiarekiko, %36,64tik %40ra igo baita. Udaletako datua nabarmen hobetu da (2012ko %37,62tik %42ra) eta kuadrilla, mankomunitate eta partzuergoetan zertxobait ere bai (2012ko %38,71tik %39,2ra).*

### Euskara sortze hizkuntza

Erakunde motak	2012	2015
Udalak	%37,62	%42
Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	%38,71	%39,2
<b>Guztira</b>	<b>%36,64</b>	<b>%40</b>

## 2.3.2. Lan bileretako ahozko erabilera

### Lan bileretako ahozko erabilera

Erakunde motak	Euskara (%)
1. Udalak	53,5
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	51
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	32,3
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	23,5
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	10
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	20
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	2
8. Lan Harremanen Kontseilua	0
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	5
10. Uraren Euskal Agentzia	40
11. Haurreskolak Partzuergoa	90
12. Etxepare Euskal Institutua	100
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	50
<b>Batez bestekoa</b>	<b>51,3</b>

Jasotako datuen arabera, erakunde multzo hauetan batezbeste *lan bileretan* %51,3 egiten dute euskaraz. *IV. Plangintzaldiko ebaluazioarekin alderatuta, gora egin du, 2012an bileren %49,9 egin baitziren euskaraz.*

### 2.3.3. Lan bileretako idatzizko erabilera

Lan bileretako idatzizko erabilera\*

Erakunde motak	Euskara	Gaztelania	Ele biak
1. Udalak	37,5	29,9	32,6
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	28,3	30,3	41,4
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	4,8	12,5	82,7
4. Eusko Jaurlaritzaren eta bere erakunde autonomiadunak	18,9	53,8	27,3
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	12	5	83
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	0	25	75
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	0	0	100
8. Lan Harremanen Kontseilua	0	90	10
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	0	100	0
10. Uraren Euskal Agentzia	1	99	0
11. Haurreskolak Partzuergoak	80	20	0
12. Etxepare Euskal Institutua	100	0	0
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	0	25	75
<b>Batez bestekoa</b>	<b>34,6</b>	<b>30,8</b>	<b>34,6</b>

\*Honakoak dira neurtu diren lan bileretako idatzizko elementuak : deialdiak, gai ordenak, aktak...

Lan bileretako idatzizko erabilaren inguruan jasotako datuen arabera, dokumentuen bi heren pasatxotan ziurtatzen da euskararen erabilera: euskara hutsez %34,6 eta ele bietan %34,6.

### 2.3.4. Lan hizkuntzako erabilerari dagozkion beste adierazle batzuk

- 2.3.4.1 Idatzizko erabilera
- 2.3.4.2 Ahozko erabilera
- 2.3.4.3 Laneko prestakuntza
- 2.3.4.4 Intraneta eta programa informatikoak
- 2.3.4.5 Barruko hizkuntza paisaia

### 2.3.4.1. Idatzizko erabilera

#### Idatzizko erabilera lan hizkuntzan\* (%)

Erakunde motak	Euskara	Gaztelania	Ele biak
1. Udalak	40,8	36	23,2
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	34,6	32,9	32,5
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	5,2	28,8	66
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomoak	15,9	47,7	36,4
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	27	14,5	58,5
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	6	37,5	56,5
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	15	35	50
8. Lan Harremanen Kontseilua	0	85	15
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	15	85	0
10. Uraren Euskal Agentzia	20,5	69,5	10
11. Haurreskolak Partzuergoa	90	10	0
12. Etxepare Euskal Institutua	100	0	0
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	15	47,5	37,5
<b>Batez bestekoa</b>	<b>38,3</b>	<b>36,2</b>	<b>25,5</b>

\*Idatzizko barne harremanetan dokumentu hauek neurtzen dira:

- Lan bileretako idatziak (deialdiak, gai ordenak, aktak...).

- Barne erabilerarako idatzizko komunikazioak (idazki laburrak: e-mailak, oharrak, jakinarazpenak, egiaztagirak, inprimakiak eta idazki luzeak: memoriak, txostenak, proiektuak...).

Idatzizko barne harreman ofizialetan euskara eta gaztelania, orokorrean, parekatuak dauden arren, erakunde motaka aztertuz gero, hainbat ezberdintasun antzematen dira. Euskara hutsean harreman gehien duten erakundeak Etxepare Euskal Institutua (%100) eta Haurreskolak Partzuergoa (%90) dira. Elebitasunak presentzia handia du Eusko Legebiltzarrean eta Arartekoan (%58,5), eta baita Euskal Herriko Unibertsitatean ere (%56,5).

IV. Plangintzaldiko datuekin alderatuta, ele bietako datuak gora egin du: %23,47tik %25,5era; eta gaztelaniakoa zertxobait jaitsi da; %37,22tik %36,2ra.

#### Idatzizko erabilera lan hizkuntzan

	2012	2015
Ele biak	%23,47	%25,5
Gaztelania	%37,22	%36,2

## 2.3.4.2. Ahozko erabilera

### Ahozko erabilera lan hizkuntzan

Erakunde motak	Lan bilerak (%)	Telefonoz (%)	Aurrez aurre (%)	Orokorra (%)
1. Udalak	53,5	55,3	53,2	54
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	51	51,1	52	51,4
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	32,3	44	34	36,8
4. Eusko Jaurjaritza eta bere erakunde autonomoak	23,5	35,2	32,8	30,5
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	10,0	49,0	32,0	30,3
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	20	35	30	28,3
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	2	10	10	7,3
8. Lan Harremanen Kontseilua	0	25	15	13,3
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	5	10	10	8,3
10. Uraren Euskal Agentzia	40	40	55	45
11. Haurreskolak Partzuergoa	90	100	100	96,7
12. Etxepare Euskal Institutua	100	100	100	100
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	50	65	65	60
<b>Batez bestekoa</b>	<b>51,3</b>	<b>53,7</b>	<b>51,8</b>	<b>52,3</b>

*Lan hizkuntzan*, euskararen erabilerearen erdia pasatxo euskaraz egiten da (%52,3). Atalka aztertuta, telefonoz egiten da euskaraz gehien (%53,7).

Emaitzak erakunde motaka aztertuz gero, ahozko harremana euskara hutsean dute Etxepare Euskal Institutuak (%100) eta Haurreskolak Partzuergoak (%96,7). Aipatzekoak dira, baita ere, bai udalek (%54) eta kuadrillek, mankomunitate eta partzuergoek (%51,4) dituzten emaitzak.

### 2.3.4.3. Laneko prestakuntza

#### Laneko prestakuntza

Erakunde motak	Euskara (%)	Gaztelania (%)	Ele biak (%)
1. Udalak	27,2	66,8	6
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	33,9	54,8	11,3
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	24,7	73,7	1,6
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	15,2	80,5	4,3
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	0	75	25
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	15	80	5
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	0	100	0
8. Lan Harremanen Kontseilua	7	93	0
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	-	-	-
10. Uraren Euskal Agentzia	1	99	0
11. Haurreskolak Partzuergoa	98	2	0
12. Etxepare Euskal Institutua	-	-	-
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	0	100	0
<b>Batez bestekoa</b>	<b>27</b>	<b>66,8</b>	<b>6,2</b>

Laneko prestakuntzan, euskarazko ikastaroez gain, langileek jaso duten prestakuntzan erabilitako hizkuntzari buruzko datuak jaso dira. Euskaraz emandako prestakuntzaren batez bestekoa %27koa da.

Emaitzak erakunde motaka aztertuz gero, oso nabarmena da Haurreskolak Partzuergoko datua, prestakuntzan euskararen erabilera %98koa da eta.

*IV. Plangintzaldiko ebaluazioarekin alderatuz, prestakuntzan euskararen erabilera datua nabarmen hobetu da, 2012an euskararen erabilera %20,52koa zen.*

Udaletan, foru aldundietan eta batzar nagusietan areagotu egin da euskararen presentzia prestakuntzan, aurreko plangintzaldiarekiko: 2012an, udaletan, %17,7 eta foru aldundi eta batzar nagusietan, %7,45.

#### 2.3.4.4. Aplikazio eta programa informatikoak

##### Aplikazio eta programa informatikoak

Erakunde motak	Euskaraz (%)
1. Udalak	44,7
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	32,8
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	52,8
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	70
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	75
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	80
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	0
8. Lan Harremanen Kontseilua	0
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	30
10. Uraren Euskal Agentzia	66
11. Haurreskolak Partzuergoa	0
12. Etxepare Euskal Institutua	90
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	25
<b>Batez bestekoa</b>	<b>44,1</b>

Herri administrazioan dauden aplikazio eta programa informatikoen ia erdiak, %44,1, euskaraz daude. Euskaraz aplikazio eta programa informatiko gehien dituzten herri erakundeak %70etik %90erako tartean daude; Etxepare institutua (%90), edo Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak (%70).

IV. Plangintzaldiarekiko datua nabarmen hobetu da, 2012an %34,86koa baitzen.



### 2.3.4.5. Barruko hizkuntza paisaia

Aztertuko dugun hurrengo adierazle multzoa Barruko Hizkuntza Paisaia izango da. Atal honetan iragarki taulak, tresneria eta paper gauzei buruzko datuak jaso dira.

#### Barruko hizkuntza paisaia

Erakunde motak	Euskara (%)	Gaztelania (%)	Ele biak (%)
1. Udalak	27,1	35,3	37,6
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	22	38,8	39,2
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	4,7	28,2	67,1
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	1	30	70
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	0	30	70
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	1,7	11,8	86,5
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	26,7	73,3	0
8. Lan Harremanen Kontseilua	0	25	75
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	0	33,3	66,7
10. Uraren Euskal Agentzia	0	32,5	67,5
11. Haurreskolak Partzuergoa	66,7	16,7	16,6
12. Etxepare Euskal Institutua	100	0	0
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	0	33,3	66,7
<b>Batez bestekoa</b>	<b>24,8</b>	<b>35,4</b>	<b>39,8</b>

Adierazlearen datu orokorrak kontuan hartuta, herri erakundeetako barruko paisaian elebitasuna erabiltzen da gehien (%39,8); gero gaztelania (%35,4); eta, azkenik, euskara (%24,8).

Erakundeei erreparatuta, aipatzekoa da Etxepare Institutuko datua (%100 euskaraz). Ele bietan duten erakundeen artean, Euskal Herriko Unibertsitatea (%86,5), Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak eta Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa (%70) daude.

## 2.4. Erabilera herri administrazioen arteko harremanetan

Herri administrazioen arteko harremanetan arlo hauek aztertuko ditugu:

- 2.4.1 Ahozko erabilera
- 2.4.2 Idatzizko erabilera

### Euskararen erabilera herri administrazioen arteko harremanetan

Erakunde motak	Idatzizko erabilera(%)			Ahozko erabilera
	Euskara	Gaztelania	Ele biak	Euskara (%)
1. Udalak	53,6	21,2	25,2	50,1
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	47	20,8	32,2	46,3
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	5,8	10,7	83,5	38
4. Eusko Jaurlearitza eta bere erakunde autonomiadunak	26,1	30,3	43,6	32,5
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	68	4,5	27,5	40,5
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	15	6,7	78,3	30
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	0	0	100	12,5
8. Lan Harremanen Kontseilua	1	59	40	5
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	5	95	0	5
10. Uraren Euskal Agentzia	2,5	50	47,5	35
11. Haurreskolak Partzuergoa	0	0	100	80
12. Etxepare Euskal Institutua	35	0	65	70
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	0	3,3	96,7	27,5
<b>Batez bestekoa</b>	<b>49,8</b>	<b>21,1</b>	<b>29,1</b>	<b>48,3</b>

Administrazioen arteko ahozko harremanei dagokienez eta batez besteko datuei erreparatuta, argi esan daiteke herri administrazioen arteko ahozko harremanen erdiak inguru euskaraz direla (%48,3). Taulari erreparatuta, nabarmenki ikus dezakegu herri administrazioen artean, multzo desberdinak egin daitezkeela administrazioen arteko ahozko harremanetan, euskararen erabilaren arabera: bana-banaka batzuek euskarazko harreman gutxi dute beste administrazioekin; ondoren beste talde batean multzokatu ditzakegu euskarazko harremanak herena eta bi herenen artean dituztenak; eta azkenik, nagusiki euskarazko harremanak dituzten gutxi batzuk.

Administrazioen arteko idatzizko harremanei begiratuta, batez bestekoaren arabera, idatzizko harremanen erdiak euskara hutsez egiten dira (%49,8); ele bietan %29,1; eta gaztelania hutsez, %21,1.

Administrazioen arteko idatzizko harremanak kontuan hartuta, herri erakundeak horrela multzokatu ditzakegu: nagusiki harremana ele bietan egiteko irizpidea dutenak; elebitasuna gaituz, euskara hutsezko idatzizko harremanak izateko pausuak eman dituztenak neurri txikiagoan edo handiagoan; eta gaztelaniazko idatzizko harremanari oraindik ere nagusitasuna ematen diotenak.

### 2.4.1. Administrazioen arteko harremanetan ahozko erabilera

Administrazioen arteko ahozko harremanetan euskara zenbatekoa den jakiteko, telefonozko harremanak eta lan bileretako erabilera hartu dira kontuan.

#### Administrazioen arteko harremanetan ahozko erabilera

Erakunde motak	Telefonoz (%)	Lan bilerak (%)	Orokorra (%)
1. Udalak	51,2	49	50,1
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	49,6	43	46,3
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	39	37	38
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	40,3	24,7	32,5
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	71	10	40,5
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	35	25	30
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	15	10	12,5
8. Lan Harremanen Kontseilua	5	5	5
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	10	0	5
10. Uraren Euskal Agentzia	45	25	35
11. Haurreskolak Partzuergoa	80	80	80
12. Etxepare Euskal Institutua	70	70	70
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	30	25	27,5
<b>Batez bestekoa</b>	<b>50,1</b>	<b>46,5</b>	<b>48,3</b>

Jasotako datuen arabera, erakunde multzo hauetan batez beste *administrazioekin telefonoz* euskaraz %50,1 egiten da. Herri erakunde gehienak ehuneko horren inguruan kokatzen dira.

*Lan bileretan* ere, antzeko batez bestekoa jaso da, %46,5 euskaraz izaten baitira.

## 2.4.2. Administrazioen arteko harremanetan idatzizko erabilera

Jarraian atal hauek aztertuko ditugu:

- Beste administrazioei igorritako idatziak
- Lan bileretako idatzizko dokumentuak
- Euskarazko komunikazioei emandako erantzuna
- Administrazioa harremanetan jartzen denean

### Administrazioen arteko harremanetan idatzizko erabilera

Sailak eta erakunde autonomiadunak	Beste administrazioei igorritako idatziak (%)			Lan bileretako idatzizko dokumentuak (%)			Euskaraz jasotako komunikazioei emandako erantzuna (%)			Orokorra (%)			Beste administrazio bat denean harremanetan jartzen dena (%)		
	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak
1. Udalak	35,6	30,5	34	38,7	29,7	31,6	86,5	3,6	9,9	53,6	21,2	25,2	27,3	23,2	49,5
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	28,9	29,6	41,5	34,1	29,7	36,3	78,1	3,1	18,9	47	20,8	32,2	25,1	29,2	45,6
3. Foru Erakundeak eta Batzar Nagusiak	5	2,8	92,3	4,3	28,8	67	8	0,7	91,3	5,8	10,7	83,5	10	5	85
4. Eusko Jauriaritza eta bere erakunde autonomoak	8	34,6	57,4	11,1	44	45	71,8	3,4	24,8	30,3	27,3	42,4	10,9	39,8	49,3
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	36	9	55	-	-	-	100	0	0	68	4,5	27,5	58	26	16
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	0	10	90	0	10	90	45	0	55	15	6,7	78,3	5	0	95
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	0	0	100	-	-	-	0	0	100	0	0	100	55	45	0
8. Lan Harremanen Kontseilua	0	30	70	2	88	10	-	-	-	1	59	40	0	70	30
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	5	95	0	-	-	-	-	-	-	5	95	0	5	95	0
10. Uraren Euskal Agentzia	5	30	65	0	70	30	-	-	-	2,5	50	47,5	8	30	62
11. Haurreskolak Partzuergoa	0	0	100	0	0	100	-	-	-	0	0	100	95	5	0
12. Etxepare Euskal Institutua	40	0	60	30	0	70	-	-	-	35	0	65	0	0	100
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal A.	0	10	90	0	0	100	0	0	100	0	3,3	96,7	10	20	70
<b>Batez bestekoa</b>	<b>32,5</b>	<b>29,9</b>	<b>37,6</b>	<b>35,3</b>	<b>30,3</b>	<b>34,4</b>	<b>81,6</b>	<b>3,3</b>	<b>15,1</b>	<b>49,8</b>	<b>21,2</b>	<b>29</b>	<b>26,2</b>	<b>24,6</b>	<b>49,2</b>

Jaso diren datuen arabera, beste administrazioei igorritako idatzietan, herena baino pixka bat gehiago ele bietan bidaltzen dira (%37,6); beste heren bat euskara hutsez (%32,5); eta gaztelania hutsez %29,9.

#### Beste administrazioei igorritako idatziak

	2012	2015
Euskaraz	%27,79	%32,5
Gaztelera	%32,26	%29,9
Ele bietan	%39,95	%37,6

IV. Plangintzaldiko datuekin alderatuta, igo egin da euskaraz igorritako idatzien portzentajea, eta jaitsi gaztelaniaz igorritakoena.

Administrazioen arteko lan bileretako idatzizko dokumentuei dagokionez, ia maila berean erabiltzen dira euskara hutsez (%35,3), ele bietan (%34,5) eta gaztelania hutsez (%30,2). Joera hori batez ere udaletan gertatzen da, eta kuadrilletan, mankomunitateetan eta partzuergoetan.

Batez bestekoari erreparatuta, eta herri administrazioan euskaraz jasotako idatziei ematen zaien erantzunari dagokionez, euskarazko erantzuna alde handiz nagusitzen da (%81,6).

Beste administrazioen eskaerari dagokionez, hau da, beste administrazioak harremanetan jartzeko erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, gehienetan ele bietako ereduak aukeratzen da (%49,2).

#### Administrazioen harreman hizkuntza

	2012	2015
Euskaraz	%13,15	%26,2

IV. Plangintzaldiko datuekiko euskararen erabilera nabarmen igo da, datua ia bikoiztuz.

## 2.5. Erakunde ordezkarien asistentzia eta parte hartzea

Atal honetan erakundeko ordezkariak erabilera planetako batzordeetan izan duten asistentzia datuak aztertuko ditugu.

**Erakunde ordezkarien asistentzia eta parte hartzea**

Erakunde motak	Asistentzia (%)
1. Udalak	80,6
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	75,7
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	90
4. Eusko Jaurjaritza eta bere erakunde autonomiadunak	77,8
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	80
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	95
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	12
8. Lan Harremanen Kontseilua	-
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	-
10. Uraren Euskal Agentzia	-
11. Haurreskolak Partzuergoa	100
12. Etxepare Euskal Institutua	100
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	
<b>Batez bestekoa</b>	<b>80,4</b>

*Erakunde ordezkariak erabilera planetako batzordeetan izan duten batez besteko asistentzia %80,4koa da. Honetan gehien nabarmentzen direnak hauek dira: Haurreskolak Partzuergoa (%100), Etxepare Euskal Institutua (%100), Euskal Herriko Unibertsitatea (%95) eta foru aldundi eta batzar nagusiak (%90).*

## 2.6. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

Hizkuntza irizpideei dagokienez, honakoak neurtu dira: administrazioetan irizpideak zehaztuta dauden, irizpideen jarraipenik egiten den eta zein den hizkuntza irizpideen betetze maila.

### Hizkuntza irizpideak

Erakunde motak	Hizkuntza irizpideak zehaztuta	Hizkuntza irizpideak zehaztuta (%)
1. Udalak	171	%68
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	14	%26
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	6	%100
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	15	%100
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	1	%100
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	1	%100
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	1	%100
8. Lan Harremanen Kontseilua	0	%0
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	0	%0
10. Uraren Euskal Agentzia	0	%0
11. Haurreskolak Partzuergoa	1	%100
12. Etxepare Euskal Institutua	1	%100
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	0	%0
<b>Guztira</b>	<b>211</b>	<b>%61</b>

Ikus daitekeenez, 211 erakundek adierazi dute *hizkuntza irizpideak* zehaztuta dituztela.

Nabarmentzekoa da hainbat erakundetan %100ean betetzen direla hizkuntza irizpideak: foru aldundiak eta batzar nagusiak; Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak; Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa; Euskal Herriko Unibertsitatea; Herri Kontuen Euskal Epaitegia; Haurreskolak Partzuergoa eta Etxepare Euskal Institutua.

## 2.7. Langile eta erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna

Atal honetan herri administrazioetako langileen hizkuntza eskakizunen betetze maila eta erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna aztertuko ditugu.

### 2.7.1. Hizkuntza eskakizunen betetze maila

Edukiak hobeto ulertzen laguntzeko, hainbat kontzepturen inguruko azalpena emango dugu labur-labur:

- *Hizkuntza eskakizuna (HE)*: hizkuntza eskakizunak lanpostua betetzeko eta bertan lan egiteko beharrezkoa den euskarazko hizkuntzari buruzko gaitasun maila zehazten du, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.2 artikulua adierazten duen bezala. Lau dira lanpostuei izendatu zaizkien hizkuntza eskakizunak: 1. HE, 2. HE, 3. HE eta 4. HE (86/1997 Dekretuaren 13.2 artikuluan arautzen da).
- *Derrigortasun data (DD)*: derrigortasun datak zehazten du lanpostu bati ezarritako hizkuntza eskakizuna noiztik aurrera bete behar den, hots, aginduzkoa izaten noiz hasten den.
- Derrigortasun data igarotakoan, lanpostu hori betetzeko ezinbestekoa izango da lanpostu horri dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea.
- *Derrigortasun indizea (DI)*: apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak 11. artikuluan xedatzen duenaren arabera, Plangintzaldi bakoitzean nahitaez bete beharreko indizeak zehaztuko du erakunde bakoitzean zenbat lanposturi esleituko zaion derrigortasun data. Indize hori finkatzeko, herri administrazio bakoitzari dagokion jarduera esparruko egoera soziolinguistikoa hartzen da kontuan (udalen kasuan udalerria izango da jarduera esparrua, foru aldundienean, berriz, lurralde historikoa...). Horretarako, «euskaldunak+(ia euskaldunak/2)» formula erabili behar da, eta Plangintzaldi bakoitza hasten denerako indarrean dagoen Errolda edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datuak erabiliko dira.

Derrigortasun indizearen arabera, erakundeak lau multzotan sailkatu dira: %0-25, %25-45, %45-70 eta %70-100. Sailkapen hori 86/1997 Dekretuko 17. artikuluan arautzen da, eta multzo bakoitzean kokaturiko erakundeek lortu beharreko gutxieneko helburuak ezartzen ditu.

Dokumentu honetako gainerako ataletan ez bezala, hizkuntza eskakizunen betetze maila aztertze-ko garaian erabili diren datuak HPSk V. Plangintzaldiaren ebaluazioa dela-eta burutu duen lanpostu zerrenden eguneraketatik atera dira. Datu horiek derrigortasun data ezarria eta ezarri gabe duten lanpostuei dagozkie.

## 2.7.2. Guztira egiaztatutako hizkuntza eskakizunak

Datuak arlo hauen arabera aztertuko ditugu:

- Derrigortasun data ezarria izanik, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileak (titularrak<sup>4</sup> nahiz okupatzaileak<sup>5</sup>).
- Derrigortasun data ezarri gabe, egiaztapenen bat lortu duten langileak (titularrak nahiz okupatzaileak).
- Lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan ez arren, hizkuntza eskakizun baxuagoren bat egiaztatua duten langileak (titularrak nahiz okupatzaileak).
- Hizkuntza eskakizunik egiaztatu ez duten langileak (titularrak nahiz okupatzaileak).
- Adinagatik salbuesteko aukera duten titularren kopurua.

<sup>4</sup>Titular deitzen zaio lanpostuaren jabea den langileari.

<sup>5</sup>Okupatzaile deitzen zaio lanpostuaren jabea ez den langileari..



### Lanpostuaren hizkuntza eskakizunen betetze-maila orokorra

Erakunde mota	Lanpostuak guztira	Hutsik edo inf. gabe	Egiaztatutako hizkuntza eskakizunak							
			Lanpostuaren HE egiaztatuta		Baxuagoren bat egiaztatuta		Ezer egiaztatu gabe		Salbuesteko egoeran	
			kop	%	kop	%	kop	%	kop	%
1. Udalak	17503	1556	8945	56,0	1417	8,8	5074	31,8	511	3,2
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	893	57	483	57,7	62	7,4	247	29,5	44	5,2
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	8104	463	4623	60,5	618	8	1740	22,7	660	8,6
4. Eusko Jaurlaritzaren eta bere erakunde autonomiadunak	7676	596	3847	54,3	774	10,9	2083	29,4	376	5,3
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	146	6	93	66,4	13	9,2	16	11,4	18	12,8
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	1547	24	1053	69,1	117	7,6	250	16,4	103	6,7
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	81	8	31	42,4	16	21,9	24	32,8	2	2,7
8. Lan Harremanen Kontseilua	16	2	9	64,2	2	14,2	3	21,4	0	0
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	16	2	7	50	5	35,7	2	14,2	0	0
10. Etxepare Euskal Institutua	8	0	8	100	0	-	0	0	0	0
11. Garapenerako Lankidetzaren euskal agentzia	16	0	9	56,2	6	37,5	1	6,2	0	0
12. Haurreskolak Partzuergoa	1538	0	1532	99,6	3	0,2	2	0,1	1	0
<b>Guztira</b>	<b>37.544</b>	<b>2.714</b>	<b>20.640</b>	<b>59,2</b>	<b>3.033</b>	<b>8,7</b>	<b>9.442</b>	<b>27,1</b>	<b>1.715</b>	<b>4,9</b>

Goiko taulan erakundearen egiaztapen maila orokorra ikus daiteke. Horretarako, lanpostu guztiak hartu dira kontuan, bai derrigortasun data dutenak, bai derrigortasun datarik ez dutenak.

Taulan ikus daitekeenez, lanpostu guztien %59,2an egiaztatuta dago lanpostuko hizkuntza eskakizuna. Hau da, lanpostu horietan diharduten langileek (20.640 langilek) egiaztatuta dute dagoeneko lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna (betetze maila hori kalkulatzeko, ez dira kontuan hartu hutsik dauden edo informaziorik ez duten lanpostuak, eta Uraren Euskal Agentziaren daturik ez da aintzat hartu, ebaluazioaren datu-bilketa egiteko garaian lanpostu zerrenda ez baitzegoen indarrean). Horrez gain, beste 3.033 lanpostutan diharduten langileek baxuagoren bat dute egiaztatuta.

Beraz, lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenak eta dagokiena baino baxuagoren bat dutenak kontuan hartzen baditugu, esan daiteke, guztira, % 67,97k dutela neurri batean edo bestean euskaraz lan egiteko gaitasuna.

Emaitzak erakunde motaren arabera aztertuz gero, %50etik goragoko emaitzak daude mota guztietan, eta Etxepare Institutuan eta Haurreskolak Partzuergoan lanpostuen %100ek dute egiaztatua dagokien hizkuntza eskakizuna.

### Hizkuntza eskakizunen arabera azterketa

HE	Lanpostuak guztira	Hutsik edo inf. gabe	Egiaztatutako hizkuntza eskakizunak							
			Lanpostuaren HE egiaztatuta		Baxuagoren bat egiaztatuta		Ezer egiaztatu gabe		Salbuetsita	
			kop	%	kop	%	kop	%	kop	%
1 HE	5591	467	2294	44,7	0	0,	2691	52,5	139	2,7
2 HE	16330	1165	9029	59,5	919	6	4525	29,8	692	4,5
3 HE	12663	849	7841	66,3	1432	12,1	1828	15,4	713	6,
4 HE	2960	233	1476	54,1	682	25	395	14,4	174	6,3
<b>Guztira</b>	<b>37.544</b>	<b>2.714</b>	<b>20.640</b>	<b>59,2</b>	<b>3.033</b>	<b>8,7</b>	<b>9.439</b>	<b>27,1</b>	<b>1.718</b>	<b>4,9</b>

Lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna %50 etik gora egiaztatua duten lanpostuaren titular edo okupatzaile gehienak 2., 3. eta 4. hizkuntza eskakizunekoak dira.

#### 2.7.2.1. Derrigorrezko data ezarria duten lanpostuak

Datuak arlo hauen arabera aztertuko ditugu:

- Derrigortasun data ezarria izanik, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langile titularrak edo okupatzaileak.
- Lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna izan ez arren, hizkuntza eskakizun baxuagoren bat egiaztatua duten titularrak edo okupatzaileak.
- Hizkuntza eskakizunik egiaztatu ez duten langile titularrak edo okupatzaileak.
- Adinagatik salbuesteko aukera duten titularren kopurua zehazten da.

2015ean, guztira, 23.439 lanpostutan dago ezarrita derrigortasun data. IV. Plangintzaldikoarekin alderatuta, 3.682 lanpostu gehiago dute derrigortasun data ezarrita, alegia, %18,6 gehiago.

Ondorengo taulan ikus daiteke derrigortasun data duten lanpostuen egiaztatze maila:

### Derrigorotasun data daukaten lanpostuetako betetze-maila

Erakunde motak	Lanpostuak guztira	Derrigorrezko data duten lanpostuak									
		Hutsik edo inf. gabe		Lanpostuaren HE egiaztatuta		Baxuagoren bat egiaztatuta		Ezer egiaztatu gabe		Salbuetsita	
	kop	kop	%	kop	%	kop	%	kop	%	kop	%
1. Udalak	10138	780	7,6	7416	79,2	684	7,3	744	7,9	514	5,4
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	487	34	6,9	350	77,2	24	5,3	35	7,7	44	9,7
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	5727	343	5,9	4144	76,9	321	5,9	259	4,8	660	12,2
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	4.346	346	7,9	3.173	79,3	206	5,1	245	6,1	376	9,4
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	105	1	0,9	75	72,1	6	5,7	5	4,8	18	17,3
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	1031	15	1,4	850	83,6	23	2,2	40	3,9	103	10,1
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	37	5	13,5	25	78,1	4	12,5	1	3,1	2	6,2
8. Lan Harremanen Kontseilua	8	1	12,5	7	100	0	0	0	0	0	0
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	7	1	14,2	5	83,3	1	16,6	0	0	0	0
10. Etxepare Euskal Institutua	8	0	0	8	100	0	0	0	0	0	0
11. Garapenerako Lankidetzaren euskal agentzia	7	0	0	6	85,7	1	14,2	0	0	0	0
12. Haurreskolak Partzuergoa	1538	0	0	1532	99,6	3	0,2	2	0,1	1	0
<b>Guztira</b>	<b>23.439</b>	<b>1.526</b>	<b>6,5</b>	<b>17.591</b>	<b>80,2</b>	<b>1.273</b>	<b>5,8</b>	<b>1.331</b>	<b>6</b>	<b>1.718</b>	<b>7,8</b>

Derrigorrezko data duten lanpostuen %80,2an egiaztatuta dago lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna eta beste %5,8tan baxuagoren bat dago egiaztatuta.

Erakundeka aztertzen badugu, gehienek %80 inguruko betetze maila dute. Lan Harremanen Kontseiluan, Etxepare Institutuan eta Haurreskola Partzuergoan lanpostuen %100ek dute egiaztatuta dagokien hizkuntza eskakizuna.

Hizkuntza eskakizunaren arabera aztertuta:

### Derrigortasun data daukaten lanpostuak Hizkuntza eskakizunen arabera azterketa

HE	Lanpostuak guztira	Derrigorrezko data duten lanpostuak									
		Hutsik edo inf. gabe		Lanpostuaren HE egiaztatuta		Baxuagoren bat egiaztatuta		Ezer egiaztatuta gabe		Salbuetsita	
		kop	%	kop	%	kop	%	kop	%	kop	%
1 HE	2153	135	6,27	1521	75,37	0	0,00	358	17,74	139	6,89
2 HE	10399	692	6,65	8011	82,53	337	3,47	667	6,87	692	7,13
3 HE	9437	590	6,25	7278	82,27	595	6,73	261	2,95	713	8,06
4 HE	1450	109	7,52	781	58,24	341	25,43	45	3,36	174	12,98
<b>Guztira</b>	<b>23.439</b>	<b>1.526</b>	<b>6,51</b>	<b>17.591</b>	<b>80,28</b>	<b>1.273</b>	<b>5,81</b>	<b>1.331</b>	<b>6,07</b>	<b>1.718</b>	<b>7,84</b>

### 2.7.2.2. Derrigortasun datarik ez duten lanpostuak

Ondoren, derrigortasun datarik ez duten lanpostuetako egiaztatze maila aztertuko dugu.

### Derrigortasun data ez daukaten lanpostuak Hizkuntza eskakizunen arabera azterketa

Erakunde motak	Lanpostuak guztira	Derrigortasun datarik ez duten lanpostuak							
		Hutsik edo inf. gabe		Lanpostuaren HE egiaztatuta		Baxuagoren bat egiaztatuta		Ezer egiaztatuta gabe	
		kop	%	kop	%	kop	%	kop	%
1. Udalak	7365	776	10,5	1529	23,2	733	11,1	4327	65,6
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	406	23	5,6	133	34,7	38	9,9	212	55,3
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	2377	120	5	479	21,2	297	13,1	1481	65,6
4. Eusko Jaurilaritza eta bere erakunde autonomiadunak	3330	250	7,5	674	21,8	568	18,4	1838	59,6
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	41	5	12,2	18	50	7	19,4	11	30,5
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	516	9	1,7	203	40	94	18,5	210	41,4
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	44	3	6,8	6	14,6	12	29,2	23	56,1
8. Lan Harremanen Kontseilua	8	1	12,5	2	28,5	2	28,5	3	42,8
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	9	1	11,1	2	25	4	50	2	25
10. Etxepare Euskal Institutua	0	0	0	0	0	0	0	0	0
11. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	9	0	%0	3	33,3	5	55,5	1	11,1
12. Haurreskolak Partzuergoa	0	0	0	0	0	0	0	0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>14.105</b>	<b>1.188</b>	<b>8,4</b>	<b>3.049</b>	<b>23,6</b>	<b>1.760</b>	<b>13,6</b>	<b>8.108</b>	<b>62,7</b>

Derrigorrezko datarik ez duten lanpostuen %23,6an egiaztatuta dago lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna. Eta, horrez gain, beste %13,6an ere baxuagoren bat dago egiaztatuta.

### 2.7.3. Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna

#### Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna

Erakunde motak	Lan egiteko gai (%)	Euskaraz ere erabiltzen du lanean (%)
1. Udalak	65,2	54
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	69,1	52,5
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	63,5	39,4
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	69,9	44,3
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	46	35
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	80	45
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	15	0
8. Lan Harremanen Kontseilua	0	0
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	20	2
10. Uraren Euskal Agentzia	50	20
11. Haurreskolak Partzuergoa	100	100
12. Etxepare Euskal Institutua	100	100
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	50	5
<b>Batez bestekoa</b>	<b>65,3</b>	<b>52,8</b>

Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasunari erreparatuta, %65,3k euskaraz lan egiteko gaitasuna dute. IV. Plangintzaldiarekin alderatuta, ordezkarien lan egiteko gaitasuna nabarmen hobetu da, 2012an %56,4koa zen eta.

#### Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna

	2012	2015
Lan egiteko gai	%56,4	%65,3

Gaitasunetik haratago, euskaraz lan egiten duten ordezkarien ehunekoari erreparatuta, herri erakundeetan ordezkari guztien erdiek euskaraz lan egiten dute: %52,8k, hain zuzen ere.

## 2.8. Langile eta erakunde ordezkarien balorazioa eta parte hartzea, erabilera planarekiko

Atal hau bi zatitan aztertuko dugu:

- 2.8.1 Langileen eta erakunde-ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko
- 2.8.2 Langile eta erakunde-ordezkarien asistentzia eta parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan

### 2.8.1. Langileen eta erakunde-ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko

Erabilera planarekiko balorazioa (%)

Erakunde motak	Oso ona	Ona	Erdizkakoa	Txarra	Oso txarra	Ez daki / ez du ulertzen
1. Udalak	10,9	32,6	13,7	1,5	0,1	41,2
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	13,1	26,3	15	0,8	0	44,8
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	5	10	3,2	0,6	0	81,2
4. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak	11,2	42,6	19,5	2,6	0,2	23,9
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	11	58	22	4	5	0
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	25	20	15	20	10	10
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	0	0	30	30	0	40
8. Lan Harremanen Kontseilua	0	0	0	0	0	100
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	15	16	15	17	17	20
10. Uraren Euskal Agentzia	0	0	0	0	0	100
11. Haurreskolak Partzuergoa	0	100	0	0	0	0
12. Etxepare Euskal Institutua	100	0	0	0	0	0
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	0	0	0	0	0	100
<b>Batez bestekoa</b>	<b>11,3</b>	<b>31,4</b>	<b>13,8</b>	<b>1,6</b>	<b>0,2</b>	<b>41,7</b>

Jasotako datuen arabera, planarekiko balorazio ona nagusitzen da. Batez bestekoari erreparatuta, balorazio oso ona edota ona eman dutenak %11,3 eta %31,4 dira, hurrenez hurren. Balorazio txarra edota oso txarra egiten dutenak ez dira %2ra ere iristen. Dena den, ez daki/ez du ulertzen %41,7k erantzuten dute; hau da, langile eta erakundeko ordezkari askok ez dute planarekiko baloraziorik egin.

## 2.8.2. Langile eta erakunde ordezkarien asistentzia eta parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan

### Erakunde ordezkarien asistentzia eta parte hartzea

Erakunde motak	Asistentzia (%)	Parte hartzea (%)
1. Udalak	80,6	45,5
2. Kuadrillak, mankomunitate eta partzuergoak	75,7	26,7
3. Foru aldundiak eta batzar nagusiak	90	28
4. Eusko Jaurlaritzaren eta bere erakunde autonomiadunak	77,8	78,5
5. Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	80	15
6. Euskal Herriko Unibertsitatea	95	50
7. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	12	0
8. Lan Harremanen Kontseilua	-	0
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	-	0
10. Uraren Euskal Agentzia	-	0
11. Haurreskolak Partzuergoa	100	75
12. Etxepare Euskal Institutua	100	100
13. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	-	0
<b>Batez bestekoa</b>	<b>80,4</b>	<b>43,5</b>

Erabilera planetako ekimenetan erakunde ordezkarien asistentziari dagokionez, lehen ikusi dugun bezala, asistentzia maila ona lortu dela esan daiteke, %80,4koa. Jasotako datuen arabera, salbuespenak salbuespen, erakunde gehienetan asistentzia maila %75etik gorakoa da.

Erabilera planeko ekimenetan langile eta ordezkarien parte hartze aktiboari erreparatuta, batez beste %43,5eko parte hartze datua jaso da. Udaletan eta beren erakunde autonomiadunetan jasotako datua batez bestekoaren antzerakoa da; beste erakunde gehienetan handiagoa da datuen dispersioa, parte hartze altuak eta txikiak, biak, jaso baitira.

## 2.9. Herri Administrazioiko emaitza kualitatiboak

### 2.9.1. Euskararen erabilera zerbitzu hizkuntzan

#### 2.9.1.1. Indarguneak

- Langile guztiak (edo ia guztiak) gai dira herritarrarekiko ahozko zerbitzua euskaraz emateko. Igotzen ari da udalarekin dituzten idatzizko harremanetan euskararen aldeko hizkuntza aukera egiten duten herritarren kopurua.
- Jendaurreko langileen hizkuntza gaitasuna eta euskaraz aritzeko langileen prestutasuna.
- Lehen hitza euskaraz egin behar dutela eta herritarrak hizkuntza aukeratzeko duen eskubidea gero eta barneratuago dituzte udal-langileek.
- Udalaren publizitate, iragarki eta kanpainetan bi hizkuntzen erabilera bermatzen da; eta hala ez denean, euskara
- Zerbitzuak ematen dituzten enpresak kontratazeko hizkuntza-betebeharren ordenantza onartua eta aplikatzen hasia dago.
- Zuzendaria liderra da, agintari politikoek lidergoa garatzen dute.

#### 2.9.1.2. Ahulguneak

- Erderarako joera gai administratiboetan. Ohitura aldaketa egiteko zailtasunak euskararen kaltetan egiten du.
- Portaera aldatzeko motibazio ez hain handia.
- Hainbat baliabide informatikok ez dute aukera ematen euskara hutsezko idatziak ateratzeko.
- Idatzi batzuk ulertezinak dira herritar askorentzat: administrazioak testuak arindu eta erraztu egin beharko lituzke.
- Hizkuntza kalitatea batzuetan ez da egokiena idatzi batzuetan.
- Euskaraz egindako eskaerak euskaraz erantzuteko sistema/aplikazio egokia falta dugu. Horrek jarraipena egiteko aukera emango liguke.
- Euskaldunen erroldarik ez dugu.
- Langile batzuk gaztelerara pasatzeko joera, herritarrak gehiegi insistitzen ez badu.
- Langileek eta zinegotziek ez dakite euskaraz komunikatzen, eta horrek eragin handia dauka normalizazioan.



- Gazteen artean ohitura falta.
- Tarteko txosten hau osatzeko orduan konturatu gara Udalean ez dugula hizkuntza egoera margozteko neurgailu sistematikorik. Ematen diren datuak ez dira asmatuak, sailez sail batutakoak dira, baina aurrerantzean datuak modu sistematikoan eta iraunkorrean batzeko tresna asmatu behar dugu, sail bakoitzeko informatzaileen jarreratik eta interesetik harantzago joango dena.
- Langileek nahiz eta HE egiaztatuta eduki, ez dute euren burua gai ikusten kaleko jendearekin euskaraz egiteko.
- Kontratatutako enpresek gaitasun nahikorik ez (ahulezia orokorra da enpresen eta prestakuntza arloko aholkularitza etxeetan).
- Jendaurreko lanpostu guztiek izan beharko lukete derrigortasun data. Erabaki hori goitik beherakoa izan beharko litzateke, ez sail bakoitzarena.

## 2.9.2. Euskararen erabilera lan hizkuntzan

### 2.9.2.1. Indarguneak

- Langileak gai dira euskaraz lan egiteko.
- Batzordeen bileretan gero eta gehiago egiten da euskaraz, interpretazio zerbitzuari esker.
- Bestelako lan bileretan eta idatzizkoan ere gero eta gehiago egiten da euskaraz.
- Langile berrientzako harrera protokoloan Udalaren Euskara Planaren berri emateak ahalbidetu du departamentu batzuetan lanpostu klabeak eta zeharlerroak direnak hasieratik euskaraz lan egiten hastea (Berdintasuna, Prebentzioa, Idazkaritza). Pertsona horiek egun erreferenteak dira, gainerako langileek euskaldun bezala identifikatzen dituzte.
- Urteetako ibilbidea. Euskaraz lan egiteko ohitura/dinamika, finkatuta neurri handi baten. Langileek, salbuespenak salbuespen, barneratuta dute euskara barruko lan hizkuntza izatea.
- Langile gehienek sentsibilizazio handia eta nahiko jarrera ona dute gai honekin.
- Langile euskaldunen kopurua gero eta handiagoa da.
- Mankomunitatea osatzen duten udalen artean euskara hutsezko espazioak eta dinamikak sortzeko aukera.
- Atal euskaldunak izendatu dira, eta horiek modu autonomoan bermatu behar dute zerbitzu hizkuntza; gainera, Atalaren lan hizkuntza euskara izango da honako hauetan: barne bilerak eta barne aginduak.

### 2.9.2.2. Ahuleziak

- Itzulpenek sortzen duten gehiegizko lan pilaketa
- Euskarazko espediente ereduen banku on bat falta da, bilatzaile on batekin, ondo sailkatua... Horrek gaztelaniatik euskararako moldaketak egin beharra dakar.
- Orain arte euskara hutsez egiten ziren agiriak ele biz egiteko presioa: Gobernu Ordezkaritzatik, Gardentasun Legea...
- Zenbait ordezkari politikok guztia gaztelaniaz ere idaztea eskatzen du eta hori ere traba bihurtzen da euskara lan-hizkuntza gisa indartu dadin.
- Batzuetan erdararako joera edo ohitura. Erdarazko ohiturak aldatzeko zailtasunak.
- Hizkuntza teknikoarekin zailtasunak. Lana euskaraz egiteko arazoak eduki ditzakete.
- Euskaraz lan egiteko baliabide falta (lege testua...). Legediaren babes falta euskarazko lan-hizkuntza arautu ahal izateko.
- Lan karga handia eta denbora gutxi euskararen erabilera eta presentzia areagotzeak eskatzen duen esfortzurako.
- Lanpostu estrategiko gehienetan erabileraren aldeko mekanismo soziolinguistikoek gaineko ezjakintasuna eta jarrera ezkorra.
- Euskararen erabilera eraginkortasunaren aurkako kontua delako ustea.

### 2.9.3. Administrazioen arteko harremanak

#### 2.9.3.1. Indarguneak

- Udalaren eta beste administrazio publikoen arteko harremana euskara hutsez egiteko bidean aurrerapausoak eman dira.
- Gero eta gehiago dira langile euskaldunak edozein administraziotan.
- Beste administrazioekiko komunikazioa ofiziala ele bietan egiten da.
- Zenbait administraziok defektuz euskaraz aritzeko hartutako erabakiak.
- Agiri ereduak sortuta izatea
- Beste administrazio batzuekiko ahozko harremanak euskaraz gauzatzen dira, hartzaileak hala eskatuz gero.

### 2.9.3.2. Ahuleziak

- Udalaren eta beste administrazio publikoen arteko harremana euskara hutsez egiteko bideak talka egiten du urte askoan ele biz jardun duten administrazioen ohiturekin.
- Langile erdaldunak edo erdaraz funtzionatzen duten enpresak kontratatzen jarraitzen duten erakunde publikoek ez diote mesederik egiten administrazioen arteko euskarazko harremanari.
- Administrazio batzuekin harremanak euskara hutsez izatea adostu arren (edo gutxienez hala eskatu arren), beste administrazioek ez dute hartutako konpromisoa betetzen.
- Harremana ele bietako denean, eta gaur gaurkoz hori da nagusi, euskara bigarren mailako hizkuntza bihurtzen da praktikan.
- Zenbait administrazioekin euskarazko harremanak izateko babes falta.
- Justizia administrazioak nagusiki gaztelera funtzionatzen jarraitzea.
- Neurri handi batean sortze hizkuntza gaztelera da, eta oraindik ere asko jotzen da itzulpena.
- Gaztelaniaren aldeko inertzia handiegia da oraindik orain. Beraz, derrigorrezkoa izan ezean, gaztelaniara jotzen da ezinbestean.
- Batzuetan gaiak oso teknikoak izaten dira eta agiriak luzeak direnean gaztelera funtzionatzen dira.
- Langile guztiek ez dituzte irizpideak berenganatuta.
- Euskararen erabileraren kontrako jarrerak ere izan badira.

### 2.9.4. Erakunde ordezkarien asistentzia eta parte hartzea

#### 2.9.4.1. Indarguneak

- Euskararen aldeko jarrera duten ordezkariak eragin biderkatzailea dute langileengan; eurak dira askogatik "eredurik" onena eta eraginkorrena. Ordezkariak normaltasunez jarduten dute euskaraz.
- Zinegotziek euskaraz egiten dute langileekin. Aintzat hartu beharreko gaitzat daukate euskararen erabilera bultzatzea.
- Zehar-lerrokotasunari begirako urratsak ematen hastea. Euskara zeharlerrotasuna irabazten ari da.
- Kudeaketa sistemetan (prozesuetan, prozeduretan...) hasi gara ezartzen hizkuntza irizpideak, hau da, prozesuetan, urratsez urrats hizkuntzak izan behar duen presentzia eta tratamendua islatzen da prozesuetan.
- Euskararen aldeko apustua egin edo agindua ematen dutenean, oro har langileek men egiten dute.

#### 2.9.4.2. Ahuleziak


- Herri txikietan ordezkari politiko gehienak ez daude liberatuta, eta nahikoa lan izaten dute euskararen normalizazioz kanpoko kontuekin.
- EHko hedabideen aurreko edo ekitaldi publikoetako hizkuntzaren erabileran eredugarri izateko bidea urratu badugu ere, oraindik orain badaude gabeziak euskara hutsez jarduteko.
- Hautagai euskaldunak aukeratzeko zailtasunak.
- Gehiengoaren aldetik ez da erakundearen lerro estrategikotzat hartzen. Ordezkarien lidergo eza dagoela esango genuke. Horren falta sumatzen dugu. Ordezkari liderrak behar ditugu, helburua argi izanda, norabide berean aginduko luketenak euskararen mesedetan.
- Oztopo asko dago ordezkarien euskara-ezagutza lidergo bihurtzeko: inertziak, administrazioaren erresistentziak, baliabide mugatuak..
- Askorentzat euskara apaingarri bat da eta, oro har, ez zaio behar bezalako garrantzia ematen hautagaien zerrenda egitean.
- Udaleko liderrek (alkatea, zuzendari edo zinegotziek) euskara ez jakitea edo ez erabiltzea.
- Euskara ez da zeharkakotasunez tratatzen.
- Kontzientziazio falta eta normalizazioari buruzko ezagutza txikia.
- Arduradun batzuk gaztelaniaz moldatzen dira erosoago eta horrek gaztelaniarako joerak bultzatzen ditu sarritan.

### 3. Sozietate publiko eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako ebaluazioa

Sozietate publiko eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan batetik, eta herri administrazio eta erakundeetan bestetik, prozesu eta metodologia berbera erabili da V. Plangintzaldiko tarteko ebaluazioa egiteko; bietan galdetegiak erabili dira baina, sozietate publikoetan, aurreko Plangintzaldian bezala, erakunde haietara egokitutako galdetegiak erabili da eta Erreferentzia Marko Estandarraren (EME) arabera galdetegiak izatea erabaki da. Izan ere, EME da BIKAINek, euskararen kalitate ziurtagiriak, oinarrian duen markoa eta Hizkuntza Politika Sailburuordetzak bultzatu nahi duena erakundeetan.

Galdetegi Euskal Autonomia Erkidegoko 202 sozietate publikori helarazi zaie. Horietatik guztietatik, 110 erantzun jaso dira: % 54,45.

Jasotako erantzunen kopuru zehatza ikus daiteke ondorengo grafikoan:




Jasotako erantzunak aurreko plangintzaldiarekiko:

	2012	2015
Jasotako erantzun kopurua	83	110

Aurreko Plangintzaldiaren aldean, 27 erantzun gehiago jaso dira (%35 gehiago), aurreko plangintzaldian 83 erantzun jaso ziren eta.

### 3.1. Erabilera planen informazioa

Galdetegiko lehen galdera euskara normalizatzeko planei buruzkoa izan da. Jakin nahi izan da, alegia, erakundeek ba ote duten euskara normalizatzeko nolabaiteko plangintzarik.



Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, jasotako datuen arabera, 44 erakundek dute erabilera plana eta 66 erakundek oraindik ez dute. Hizkuntza Politika Sailburuordetza azken erakunde hauekin harremanetan dago beharrezko laguntza emateko erabilera plana izan dezaten.

#### Erabilera planak

	2012	2015
Badute erabilera plana	20	44

IV. Plangintzaldiko datuen aldean, erabilera planen kopurua bikoiztu egin da: 2012an 20 erabilera plan zeuden eta orain 44.

### 3.2. Erabilera zerbitzu hizkuntzan

Sozietate publikoetako zerbitzu hizkuntzan elementu hauek aztertu ditugu:

- Hizkuntza paisaia eta irudi korporatiboa
- Harrera
- Bezero/herritarrekin erabilera

#### 3.2.1. Hizkuntza paisaia

Esparru hau zazpi ataletan banatuta dago:

- Kanpo errotulazio finkoa
- Kanpo errotulazio aldakorra
- Harrera-lekuko errotulazio aldakorra
- Harrera-lekuko errotulazio finkoa

- Errotulazio finkoa osagai higikorretan
- Webgunea eta gizarte sareak
- Marketin eta publizitatea

Hizkuntza paisaiako emaitza orokorrak hauek dira:

#### Hizkuntza paisaia

Euskararen erabilera	Kanpo errotulazio finkoa (%)	Kanpo errotulazio aldakorra (%)	Harrera lekuko errotulazio finkoa (%)	Harrera lekuko errotulazio aldakorra (%)	Errotulazio finkoa osagai higikorretan (%)	Webgunea eta gizarte sareak (%)	Marketin eta publizitatea (%)
Nagusiki gaztelaniaz	5,2	7,2	7,4	5,4	1,8	8,1	11,9
Erdiak euskaraz	7,4	6,3	7	4,8	1,8	5,2	5,4
Nagusiki euskaraz	67,3	66,7	61,3	67	26,7	61,5	63,5
Ez da aplikagarri	20	19,8	24,3	22,8	69,7	25,2	19,2

Grafikoan ikus daitekeenez, erakundeek hizkuntza paisaia nagusiki euskaraz dute.

### 3.2.2. Harrera

Esparru hau hiru ataletan dago banatuta:

- Harrera hizkuntza (aurrez aurreko edo telefono bidezko harrera, harrera automatizatu eta megafonia)
- Bisitariekin harremana (idatzizko materiala eta aurkezpena)
- Segurtasuna (protokoloa eta harrera hizkuntza)

Jarraian ikus daiteke erakundeetan neurtu den euskararen erabileraren argazkia:

#### Harrera hizkuntza

#### Harrera hizkuntza

Euskararen erabilera	Aurrez-aurreko / telefono bidezko harrera: agur hitzak eta argibideak (%)	Harrera automatizatu (%)	Megafonia bidezko mezuak (%)	Pertsona / bisitarien sarrera eta irteeren erregistroa (%)
Nagusiki gaztelaniaz	15,3	6,3	2,7	16,2
Erdiak euskaraz	9,9	5,4	3,6	5,4
Nagusiki euskaraz	74,8	50,5	22,5	25,2
Ez da aplikagarri	0	37,8	71,2	53,2

Harrerari dagokionez, euskara gehien aurrez aurreko /telefono bidezko harreran egiten da (%74,8). Harrera automatizatuen erdia ere nagusiki euskaraz dago (%50,5).

### *Bisitariekin harremana*

#### Bisitariekin harremana

Euskararen erabilera	Bisitari-txartelak eta idatzizko materiala (%)	Bisitariekin erabilitako aurkezpen hizkuntza (%)
Nagusiki gaztelaniaz	5,4	24,3
Erdiak euskaraz	4,5	9
Nagusiki euskaraz	38,7	46,8
Ez da aplikagarri	51,4	19,8

Bisitariekin, nagusiki euskaraz egiten da, bai idatzikoan zein aurkezpenean: %38,7 eta %46,8 .

### *Segurtasun protokoloa eta harrera*

#### Segurtasuna

Euskararen erabilera	Protokoloa eta harrera hizkuntza (%)
Nagusiki gaztelaniaz	28,8
Erdiak euskaraz	5,4
Nagusiki euskaraz	29,7
Ez da aplikagarri	36

Segurtasunean, aldiz, euskararen presentzia ziurtatzen duten eta ziurtatzen ez duten erakundeak parean daude.

### **3.2.3. Bezeroak / herritarrak**

Bezero/herritarren ataleko datuak bi ataletan daude banatuta:

- Idatzizko harremanak
- Ahozko harremanak

Erakundeek bezero/herritarrekin harremanetan euskararen erabilerearen gainean duten portaera:



### Bezeroak / herritarrak

Euskararen erabilera	Idatzizko harremanak (%)	Ahozko harremanak (%) aurrez-aurre eta telefonoz
Nagusiki gaztelaniaz	37,4	62,2
Erdiak euskaraz	8	13,5
Nagusiki euskaraz	47,6	21,6
Ez da aplikagarri	7,1	2,7

Bezero/herritarren harremanetan idatzizkoan nagusiki euskaraz egiten da (%47,6), ahozkoan aldiz, gaztelaniaz edo euskaraz antzerako emaitzak daude: %37,8 gaztelaniaz eta %36,9 euskaraz.

### 3.3. Erabilera lan hizkuntzan

Sozietate publikoetako zerbitzu hizkuntzan elementu hauek aztertu dira:

- Barruko hizkuntza paisaia
- Produktua/zerbitzua
- Hizkuntza politika
- Pertsonen kudeaketa
- Baliabideak

#### 3.3.1. Barruko hizkuntza paisaia

##### Hizkuntza paisaia

Euskararen erabilera	Paper gauzak eta zigiluak (%)	Irudi korporatiboaren osagaiak
Nagusiki gaztelaniaz	8,1	9,9
Erdiak euskaraz	7,9	6,8
Nagusiki euskaraz	64,2	76,1
Ez da aplikagarri	19,8	7,2

Barruko hizkuntza paisaia nagusiki euskaraz dute: paper gauzak eta zigiluak %64,2 eta irudi korporatiboko osagaiak %76,1.

### 3.3.2. Produktua / zerbitzua

Atal hauek aztertu dira:

- Fitxa teknikoa.
- Bilgarria/enbalajea.
- Hizkuntza osagaiak (pantailak, ahots mezuak, ahozko harremanak).
- Bermea.
- Markaren izena.
- Etiketak.
- Salmenta osteko zerbitzua.
- Zerbitzuari dagozkion dokumentuak.

#### Produktua / Zerbitzua (%)

Euskararen erabilera	Fitxa teknikoa	Bilgarria / enbalajea	Hizkuntza osagaiak	Bermea	Markaren izena	Etiketak	Salmenta osteko zerbitzua	Zerbitzuari dagozkion dokumentuak
Nagusiki gaztelaniaz	21,6	4,5	12,6	6,3	1,8	4,5	9,9	21,6
Erdiak euskaraz	6,3	0,9	2,7	1,8	4,5	4,5	6,3	10,8
Nagusiki euskaraz	26,1	8,1	36	9,9	58,6	20,7	14,4	37,8
Ez da aplikagarri	45,9	86,5	48,6	82	35,1	70,3	69,4	29,7

Nagusiki euskaraz dauden elementuak dira: hizkuntza osagaiak (%36), markaren izena (%58,6), eta zerbitzuari dagozkion dokumentuak (%37,8).

### 3.3.3. Hizkuntza politika

Hizkuntza politikak ere bi atal ditu:

- **Helburuak, planteamendua eta ikuspegi orokorra:**
  - Hizkuntza politika, euskararen ikuspegia edota epe luzeko planteamendua duen hizkuntza egitasmo bat zehaztu da erakundearen.
  - Planteamendu hau erakundearen organo nagusietan onartu eta bultzatzen da.
  - Planteamendu hau langileei eta gainerako interes talde adierazgarrienei zabaldu zaie.
  - Planteamendu hau erakundearen bestelako plangintza eta ikuspegiarekin uztartuta dago eta berez dituen kudeaketa erremintetan txertatuta dago.

### Helburuak, planteamendua eta ikuspegi orokorra (%)

Euskararen erabilera	Hizkuntza politika, euskararen ikuspegia / epe luzeko planteamendua zehaztu da	Erakundeko organo nagusietan onartu eta bultzatzen da:	Langileei eta gainerako interes talde adierazgarrienei zabaldu zaie:	Erakundeak dituen plangintza / ikuspegiakin uztartuta dago eta kudeaketa erremintetan txertatuta
I- Ez ados	27	31,5	29,7	35,1
2	12,6	10,8	14,4	13,5
3	25,2	20,7	22,5	26,1
4	12,6	13,5	18,9	13,5
5- Guztiz ados	22,5	23,4	14,4	11,7

- **Planifikazioa:**

- Epe ertain nahiz laburrerako helburuak lortzeko ekimen planifikatua badago, eta erakundeak berez dituen kudeaketa erremintetan jasota dago.
- Helburu hauek argitara eman dira eta langileei eta gainerako interes talde adierazgarrienei zabaldu zaizkie.
- Barneko informazioa eta pertsonen ekarpenak jaso eta aztertzen dira, adierazle, ebaluazio eta abarren bidez.
- Sistematikoki egiten da aurrerapen mailaren azterketa objektiboa, jarraipena eta ebaluazioa.
- Hobekuntza ekintzak martxan jarri dira eta goranzko bilakaera ikusten da.

### Planifikazioa (%)

Euskararen erabilera	Epe ertain/ laburrerako helburuak kudeaketa erremintetan jasota	Helburu langileei eta gainerako interes talde zabaldu zaizkie:	Ekarpenak jaso eta aztertzen dira, adierazle, ebaluazio eta abarren bidez:	Sistematikoki egiten da jarraipena eta ebaluazioa:	Hobekuntza ekintzak martxan jarri dira eta goranzko bilakaera ikusten da:
I- Ez ados	39,6	36,9	47,7	51,4	45
2	12,6	13,5	17,1	12,6	9
3	24,3	23,4	14,4	20,7	24,3
4	14,4	12,6	12,6	10,8	11,7
5- Guztiz ados	9	13,5	8,1	4,5	9,9

*Ikus daitekeenez Helburuak, planteamendua eta ikuspegi orokorra atalean erdiak ados daude. Planifikazioa atalean ados ez daudenak nagusitzen dira eta beraz hobetzeko arloa da.*

### 3.3.4. Pertsonen kudeaketa

Pertsonen kudeaketaren esparrua ere bi atal edo baieztapen hauetan dago banatuta:

- “Hizkuntza politika kontuan hartzen da pertsonen kudeaketa eta haiekiko harremanak gauzatzeko garaian”
- Erakundeko arduradunek hizkuntza politika barneratzen dute eta bere jardunarekin horren eredu dira

**Pertsonen kudeaketa (%)**

Euskararen erabilera	Hizkuntza politika kontuan hartzen da pertsonen kudeaketa eta haiekiko harremanetan	Erakundeko arduradunek hizkuntza politika barneratzen dute eta bere jardunarekin horren eredu dira
1- Ez ados	37,6	34,9
2	13,	16
3	17,3	22,7
4	13,3	15,5
5- Guztiz ados	18	10,8

Grafikoan ikus daitekeenez, esparru honetan ere aurrekoan bezala, ados ez daudenen multzoa nagusitzen da.

Planifikazioa eta Pertsonen kudeaketari dagokionez indartu beharreko arloak dira erakundeetan.

### 3.3.5. Baliabideak

Baliabideen esparrua bi ataletan dago bereizita:

- Giza egiturak:
  - Ekimen planifikatua garatzeko erakundeak arduradun bat izendatu du eta baliabideak eskuratu dizkio (baliabide materialak, denbora, laguntzaileren bat...).
  - Euskara batzorde, segimendu-talde edo lan-talde bat eratu da.
- Inbertsioa
  - Hizkuntza kudeaketak ekarritako gastuetarako (pertsonen dedikazioa, hizkuntza trebakuntza, hizkuntza lanabesak, itzulpena...) aurrekontuak taxutzen dira.

### Baliabideak

Euskararen erabilera	Giza egiturak (Pertsona , Taldea) (%)	Inbertsioa (Aurrekontua) (%)
1- Ez ados	53,6	36
2	9	14,4
3	12,2	21,6
4	9	11,7
5- Guztiz ados	16,2	16,2

Ikus daitekeenez, bi ataletan nagusitzen da ados ez daudenen multzoa. Halere, ehunekoetan aldea dago giza egituretan eta inbertsioetan; %53,6 eta %36. Bi datu horietatik interpretazio hau egin genezake: giza egituretan makalago dabilta erakundeak inbertsioetan baino; beraz, antolaketa aldetik (euskara batzorde, koordinatzaile...) okerrago dabilta erakundeak inbertsioetan baino (hizkuntza trebakuntza, itzulpenak...).



## 4. Eranskinak

### 4.1. I. eranskina: datuak lurraldeka

#### 4.1.1. Erabilera planak

Erakundeak badu erabilera planik?

Lurraldeak	Bai	Ez
Araba	60	3
Bizkaia	102	22
Gipuzkoa	72	22
EAE	22	3
<b>Guztira</b>	<b>256</b>	<b>49</b>

#### 4.1.2. Erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan

Euskararen idatzizko erabilera, arreta eta jendaurreko zerbitzuetan (%)

Lurraldeak	Emaitzak (%)		
	Euskara	Gaztelania	Ele biak
Araba	9,4	25,8	64,8
Bizkaia	35,9	8,8	55,3
Gipuzkoa	65	2,7	32,3
EAE	14,8	8,4	76,8
<b>Batez bestekoa</b>	<b>40,6</b>	<b>9,2</b>	<b>50,2</b>

**Lurraldeka aztertuta**, elebitasuna nagusitzen da Arabako, Bizkaiko eta EAE mailako erakundeetan. Gipuzkoan aldiz, euskara hutsezko erabilera nagusitzen da.

### Herritarrekin idatzizko harremanak

Lurraldeak	Tramitazio telematikoa (%)			Herritarrei bidalitako idatziak (%)			Herritarrek euskaraz bidalitako idatziei emandako erantzuna (%)			Orokorra (%)			Herritarrek erakundera bidalitako idatziak (%)	
	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz	Ele biak	Eus	Gaz
Araba	4,9	78	17,1	1,9	68,8	29,3	70	7,9	22,1	25,6	51,6	22,8	5,8	94,2
Bizkaia	13,2	25,8	61	21,8	17,6	60,6	72,6	5,2	22,2	35,8	16,2	48	28,7	71,3
Gipuzkoa	26,6	7,4	66	54,6	3,8	41,6	92,8	0,4	6,8	58	3,9	38,1	63,1	36,9
EAE	5,2	13,8	81	10,3	28,6	61,1	64,7	7,4	27,9	26,7	16,6	56,7	22,3	77,7
<b>Batez bestekoa</b>	<b>15,7</b>	<b>26,4</b>	<b>57,9</b>	<b>27,2</b>	<b>24,7</b>	<b>48,1</b>	<b>78,7</b>	<b>4</b>	<b>17,3</b>	<b>40,5</b>	<b>18,4</b>	<b>41,1</b>	<b>34,3</b>	<b>65,7</b>

### Euskararen ahozko erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan

Lurraldeak	Harremana harreran (%)			Orokorra	Harremana elkarrizketetan (%)		Orokorra
	Telefonozko harreran euskara	Leihatilako harreran euskara	Jendaurreko ekitaldietan euskara		Leihatilako elkarrizketetan euskara	Telefonozko elkarrizketak euskaraz	
Araba	37,1	24,6	20,2	27,3	47,2	44,4	45,8
Bizkaia	80,9	72,3	62,3	71,9	82,8	81,4	82,1
Gipuzkoa	96,1	93,6	85,8	91,9	95,5	96,1	95,8
EAE	71,1	68,5	37,7	59,1	83,1	79,2	81,2
<b>Batez bestekoa</b>	<b>75,9</b>	<b>68,8</b>	<b>62,3</b>	<b>69</b>	<b>79,3</b>	<b>78</b>	<b>78,7</b>

Lurraldeka aztertuta, Gipuzkoako herri administrazioetan nabarmena da euskararen erabilera, bai harreran (%91,9) bai harreraren ondorengo elkarrizketan (%95,8).



### 4.1.3. Euskara sortze hizkuntza

Euskara sortze hizkuntza

Lurraldeak	Euskaraz sortutako idatziak
Araba	4,8
Bizkaia	34,9
Gipuzkoa	72,8
EAE	25,4
<b>Batez bestekoa</b>	<b>40</b>

### 4.1.4. Lan bileretako ahozko eta idatzizko erabilera

Lan bileretako ahozko erabilera

Lurraldeak	Lan bileretako ahozkoa
	Euskara (%)
Araba	6,2
Bizkaia	50
Gipuzkoa	87,1
EAE	30,8
<b>Batez bestekoa</b>	<b>51,3</b>

Lan bileretako idatzizko erabilera

Lurraldeak	Euskara	Gaztelania	Ele biak
Araba	1,8	74,4	23,8
Bizkaia	25,3	25,4	49,3
Gipuzkoa	71,6	5,9	22,5
EAE	23	46,8	30,2
<b>Batez bestekoa</b>	<b>34,6</b>	<b>30,8</b>	<b>34,6</b>

#### 4.1.5. Administrazioen arteko harremanetan euskararen erabilera

##### Administrazioen arteko harremanetan euskararen erabilera

Lurraldeak	Idatzizko erabilera (%)			Ahozko erabilera (%)
	Euskara	Gaztelania	Ele biak	
Araba	25	59,6	15,4	9,2
Bizkaia	40,3	17,5	42,2	46,3
Gipuzkoa	78,5	4,2	17,3	78,4
EAE	29,3	21,8	48,9	35,3
<b>Batez bestekoa</b>	<b>49,8</b>	<b>21,1</b>	<b>29,1</b>	<b>48,3</b>

Idatzizko harremanen kasuan, batez ere elebitasuna nagusitzen da Bizkaiko herri erakundeetan (%42,1); baita EAE mailako herri erakundeetan (%48,9); eta euskara hutsezko harremanak Gipuzkoako herri erakundeetan (%78,5).

##### Administrazioen arteko harremanetan ahozko erabilera

Lurraldeak	Telefonoz (%)	Lan bilerak (%)	Orokorra (%)
Araba	12,3	6,2	9,2
Bizkaia	48,8	43,8	46,3
Gipuzkoa	78,9	78	78,4
EAE	41,8	28,8	35,3
<b>Batez bestekoa</b>	<b>50,1</b>	<b>46,5</b>	<b>48,3</b>

#### 4.1.6. Ordezkarien asistentzia eta parte hartzea

##### Erakunde ordezkarien asistentzia eta parte hartzea

Lurraldeak	Asistentzia (%)
Araba	81,1
Bizkaia	75,6
Gipuzkoa	86,4
EAE	78,8
<b>Batez bestekoa</b>	<b>80,4</b>

#### 4.1.7. Hizkuntza irizpideak

##### Hizkuntza irizpideak

Lurraldeak	Zehaztu dira
Araba	27
Bizkaia	89
Gipuzkoa	74
EAE	21
<b>Guztira</b>	<b>211</b>

#### 4.1.8. Langile eta erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna

##### Langileen hizkuntza gaitasuna

Lurraldeak	Lanpostuak guztira	Hutsik edo inf. gabe	Egiatzatutako hizkuntza eskakizunak							
